111

# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

2021eko urtarrila



IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ELKARRIZKETA

## Miren Basaras, EHUko irakaslea, mikrobiologoa:

*«Ikus dezagun nola eboluzionatzen duen bigarren olatuak, ez dezagun hirugarrenik izan»*

ERREPORTAJEA

## Elikagaien xahutzea, amaierarik gabeko janari galera



EZTABAIDA

## Abortua: Legez arautu, baina gizartea hezi

OSASUNA

### Osarean: Osakidetza ez presentziala

Telemedikuntzaren kudeaketa (eta 2)

ANTONIO DE BLAS
DABI SANTANO

GRAMATIKA

### «Egin» aditzaren zenbait erabilera gogorarazten (I)

TOMAS ARZUBIALDE

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

### Haurrak, smartphoneak, sare sozialak eta lineako jolasak

JULEN LINAZASORO



Idoia Beratarbide

111. zk. • urtarrila • 2021

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

**Zuzendaritza:**
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**
Xabier Amatria

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:**
Itxaropena S.A.

**Ilustrazioak:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lankideak:**
Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Tomas Aranzubia, Begoña Ayerdi, Urtzi Barrenetxea, Idoia Beratarbide, Oihana Cabello, Antonio de Blas , Miel A. Elustondo, Aitziber Etxeberria, Irene Fernandez, Idoia Garzes, Julen Linazasoro, Luma, Nerea Pikabea, Dabi Santano, Xavier Vila, Izaskun Zuntzunegi.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

**ISSN:** 1576-5563
**Legezko Gordailua:** BI-1141-93

**Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel. 945 01 76 37
**www.ivap.euskadi.net**

# Aurkibidea

2 ***Marrazkia***
IDOIA BERATARBIDE

4 ***Pertsonaia***
Maria Aizpuru Aierbe
NEREA PIKABEA

6 ***Pasadizoak***
Egun handira arte?
KAXILDO ALKORTA

7 ***Erreportajea***
Elikagaien xahutzea, amaierarik gabeko janari galera
JON ARIZKUN

12 ***Elkarrizketa***
Miren Basaras: «Ikus dezagun nola eboluzionatzen duen bigarren olatuak, ez dezagun hirugarrenik izan»
MIEL A. ELUSTONDO

18 ***Leihatila***
*Anaia bi*
IDOIA GARZES

***[ARIKETAK]***

19 ***Informazio eta komunikazioaren teknologiak***
Haurrak, smartphoneak, sare sozialak eta lineako jolasak
JULEN LINAZASORO

21 ***Eztabaida***
Abortua: Legez arautu, baina gizartea hezi
OIHANA CABELLO

26 ***Normalizazioa***
Hizkuntza gutxituak: ezagutzaren eta erabilera sustatzearen arteko lotura
F. XAVIER VILA

28 ***Gramatika***
«Egin» aditzaren zenbait erabilera gogorarazten (I)
TOMAS ARZUBIALDE

30 ***Osasuna***
Osarean: Osakidetza ez presentziala. Telemedikuntzaren kudeaketa (eta 2)
ANTONIO DE BLAS
DABI SANTANO

33 ***Leihatila***
*Bidaia*
AITZIBER ETXEBERRIA

34 ***Denbora-pasak***
LUMA

# Maria Aizpuru Aierbe, zinemagilea

Nerea Pikabea
Kazetaria

Bideoa tresna baliagarria da norberaren egoera eta horren ingurumarian gertatzen dena norberaren ikuspuntutik kontatu ahal izateko. Hala iritzita dago Maria Aizpuru Aierbe (Donostia, 1983) zinemagilea. Horri buruzko tesia egiteaz gain, hainbat film labur egin ditu metodologia parte-hartzailean oinarrituta. Horietako batean, 2016an eraildako Berta Cáceres ekintzaile hondurastarrak giza eskubideen alorrean egindako lana kontatzen da. Libanon, errefuxiatu siriarren kanpamendu batean ere aritu da elkarrizketak grabatzen. *Sombras de Beirut* film laburra udarako amaitzea espero du, birus berriaren bilakaeraren arabera beti ere. Zine eta Bideo Eskolan ere badihardu irakasle lanetan.



**Ikus-entzunezkoen garaian bizi gara. Hain zuzen ere, alor horretako ikasketak egin dituzu. Haurtzaroan, ze harreman izan zenuen irudiarekin eta soinuarekin?**

Irudiz eta bideoz beteta egon da beti gure etxea; horrekin bizi izan gara. Gure etxean beti egon da bideo kamera. Izan ere, gure aita, Iñaki Aizpuru, ikus-entzunezkoen munduan ibili izan da beti. 80ko hamarkadan, kamera lanetan aritu zen albiste agentzietarako. *Erreporteroak* izeneko filma egin zuen, eta geroago, Zine eta Bideo eskola sortu zuen. Nire nebek ere, Ikerrek eta Iñigok, ikus-entzunezkoen munduan egiten dute lan.

**Txikitan aisialdia zena, gero, lanbide izatera iritsi da.**

Giza Zientziak eta Komunikazioa ikasi nituen Deustun, eta Ikus-entzunezko Komunikazioa EHUn. Ondoren, bideo parte-hartzaileari buruzko tesia egin nuen, Guatemalan bazterkeria egoeran bizi diren gazteekin izandako esperientzia oinarri hartuta. Metodologia hori Paulo Freire pedagogo brasildarraren «heziketa herrikoia» teorian oinarrituta

## *«Bideo parte-hartzailean norberak hartzen du bere irudia eraikitzeko ardura, ez kanpoko batek»*

dago; Latinoamerikan asko garatu da. Freireren arabera, hezkuntza norberaren baitan dago, eta irakaslea gidaria besterik ez da hezkuntza prozesu horretan. Teoria hori bideoan erabiliz gero, bideo parte-hartzailean norberak hartzen du bere irudia eraikitzeko ardura, ez kanpoko batek.

**Zergatik landu nahi izan duzu gai hori?**

Lau urte egin nituen Guatemalan kooperante hainbat gobernuz kanpoko erakunderekin. Umeekin lan egiteko tresna interesgarria iruditu zitzaidan bideoa; tresna egokia haiei buruz transmititu nahi zutena transmititzen laguntzeko. Haiekin landu nuen ikus-entzunezkoa, beraien errealitatean sakondu zezaten, beraien ikuspuntutik abiatuta. Adibidez, Latinoamerikari buruzko erreportaje edo dokumental bat egiten badugu, gure errealitatetik abiatuta egin ohi dugu. Estereotipoetara jotzeko joera dugu.

**Bazterkeria egoeran dauden taldeekin lanean ibilia zara.**

Proiektu desberdinetan aritu nintzen. Protection International erakundean bideoak egiten aritu nintzen. El Salvador eta Hondurasen arteko mugan bizi diren lenca indigena komunitateko emakumeekin ere film labur bat egin nuen. Giza eskubideak babesteko lanean ari dira, eta bertara joan nintzen grabatzera. Oso esperientzia polita izan zen. Guatemalara itzuli nintzenean, Hondurasko proiektu horretan koordinatzaile lana egiten zuen Berta Cáceres ekintzailea hil zuten, duela lau urte.

**Berta Cáceres ezagutzeko aukera izan zenuen, beraz?**
Bera ezagutzeko aukera izan nuen, bai. Oso ezaguna zen. Goldman Nazioarteko Ingurumen saria ere eman zioten. Nik elkarrizketatu nituen mugimenduko emakumeak, ordea, ez ziren hain ezagunak. Gogorra izan zen erail izana. Hilketaren ondoren, sarritan pentsatzen nuen zer gerta ote zitzaiekeen nik elkarrizketatutako emakume haiei. Askoz ere babes gutxiago zeukaten; oso zaurgarriak ziren. Kolektiboaren burua hil nahi izan zuten, mugimenduari indarra eta motibazioa kentzeko. Kolektibo horiei buruzko film laburra editatzen ari nintzen Berta hil zutenean. Azkenean, kolektiboari buruzko filma Bertari buruzko film bihurtu zen, Bertaren omenez eginiko lana, alegia. Hainbat sari jaso zituen.

**Giza eskubideak, injustizia, matxismoa, indarkeria, bazterkeria egoeran dauden kolektiboak. Gai horien inguruan ari zara beti. Zer lortu nahi duzu?**
Gure eguneroko bizitzatik atera, eta jendeak kanpoan gertatzen denari buruzko ikuspuntu zabalagoa edukitzea nahiko nuke. Gure ekintzek eragina dute beste toki batzuetan. Ikus-entzuleak horretaz jabetzea nahiko nuke. Hori, niretzat, lorpen handia litzateke.

**Nola lagundu dezake ikus-entzunezkoak bazterkeria egoeran dauden kolektibo horiek ahalduntzen?**
Lor daiteke haiei horretarako tresnak emanez. Haiek eraiki beharko lukete beren mezua; hori lortzea handia litzateke. Ikuspuntu gehiago eta zabalagoak izango genituzke, baita kontatzeko modu desberdinak ere. Beste errealitate batzuk ezagutu eta enpatia sortzeko aukera ematen du. Bideoa tresna oso baliagarria da horretarako.

***Sombras de Beirut* film laburra egiten ari zara orain. Libanon, gerratik ihesi joandako errefuxiatu siriarren kanpamendu batean izan zara.**
Lagun bat bisitatzera joan nintzen Libanora, eta, bertan, hainbat elkarrizketa grabatu nituen, ondoren bideo parte-hartzaile txiki bat egiteko. Doku fikzioa da. Ikertzaileei eta errefuxiatuei egin dizkiegu elkarrizketak. Koronabirusak uzten digunean, bertara joango gara berriro grabaketa bukatzera. Ondoren, editatzen hasiko gara. Uda aldera amaitzea espero dut. Gero, hainbat hizkuntzatara itzuli nahi dugu.

**Zer kontatzen da bertan? Zein da doku fikzio horren muina?**
Biztanle kopuruari erreparatuz gero, Libanok du munduan errefuxiatu kopuru handiena: sei milioi biztanle dira, eta hiru milioi errefuxiatu dituzte. Errefuxiatuak egoera kaskarrean bizi dira. Errefuxiatu estatusik ez daukate, Libanok ez baitu Nazio Batuen errefuxiatuen hitzarmenik sinatu nahi izan. Ezin dute lanik egin sektore askotan; askatasuna murriztuta daukate. Libano Siriak okupatuta egon zen 2005 arte. Orain, aldiz, siriarrak izan dira Libanora laguntza eske joan direnak. Egoera paradoxikoa da. Siriako gobernuak haiekin eduki zuen jarrera bera dauka orain Libanokoak: indarkeria erabiltzen dute eta askatasuna murriztu dizkiete.

**Crowdfunding sistemaren bidez ordainduko duzue film laburra.**
Gipuzkoako Foru Aldundiaren META programaren barruan aurkeztu genuen. Herritarrek ematen duten euro bakoitzeko Aldundiak beste horrenbesteko ekarpena egiten du.

**Bazterkeria egoeran bizi den jende asko ezagutu duzu batean zein bestean. Zerk astindu dizu barrua?**
Jendearen bizimodu gogorra ikusi dut ibili naizen tokietan. Guatemalan, esate baterako, bi lagun hil ziren ni etxera itzuli aurretik; horietako bat bahitu eta hil egin zuten. Libanon, berriz, siriar errefuxiatuek kalean ibiltzeko daukaten beldurra nabarmenduko nuke; eta, batez ere kontrolekin zerikusia duen beldurra. Pasaportea General Security delakoan utzi behar izaten dute, eta kalean paper batekin ibiltzen dira. Errefuxiatu asko eta asko mutil gazteak dira, gerrara ez joateko ihesi atera zirenak. Mukhabarat inteligentzia zerbitzuaren jazarpenaren beldur horrekin bizi dira.

**Zer kontatu nahi duzu zure film laburretan?**
Gustatuko litzaidake pixka bat gehiago lantzea nola aurre egiten diegun bizitzako momentu gogorrenei edota sortzen zaizkigun arazoei. Jasotako indarkeria mota batzuk ez baditugu identifikatzen, gero indarkeria hori errepikatu egiten dugu. Garai batean, Libanok siriar erregimenaren indarkeria jaso zuen, eta orain, gauza bera egiten ari da Libano siriarrekin. Hori era pertsonal zein kolektiboan egiten dugun zerbait da. Pertsonen alderdi psikologiko hori erakutsi nahi nuke nire lanen bitartez, baita pertsonok komunean ditugun gauzak ere. Uste duguna baino gauza gehiago ditugu komunean.

**Zine eta Bideo eskolako errealizazioko irakaslea zara duela bi urtez geroztik. Zer erakutsi nahiko zenieke ikasleei, irakasgaiaren alde teknikoaz haratago?**
Ez da erraza ikus-entzunezkoen munduan lan egitea, eta horretan aritu nahi dutela argi baldin badaukate, beren helburua lortzeko lanari gogor ekin beharko diote. Horixe da nik helarazi nahiko niekeen mezua.

**Ikus-entzunezko teknikarien lan mundua ez da oso egonkorra izan, oro har. Lehenaz gain, koronabirusak gogor kolpatu du sektorea.**
Koronabirusak gauza txarrak ekarri ditu, baina onak ere bai. Batetik, hainbat hilabetetan geldirik egon gara martxotik aurrera. Baina, bestetik, ikus-entzunezkoa asko kontsumitu du gizarteak. Hor badago lan egiteko aukera.

**Beiruteko lana bukatzen duzunean, zein izango da zure hurrengo proiektua? Baduzu bete gabeko ametsen bat?**
Hasiera batean, film luze bat egiteko asmoa nuen Beiruteko gaiarekin. Baina konturatu naiz film luze bat egiteko, aurretik ibilbide luzea egin behar dela. Une honetan, Beiruteko indarkeriaren gaiaren inguruko film luze bat egiteko gidoia idazten ari naiz. Gai horren beste ertz bati heldu nahiko nioke. Aurrerantzean ere, ikus-entzunezko proiektuak egiten segitu nahiko nuke, eta noski, ikasi dudan guztia helarazi nahiko nieke eskolako ikasleei. ■

# Egun handira arte?

Kaxildo Alkorta
Laguna

Azken astean bi hileta-mezatan izan naiz –apaiz batenean eta amama etxekoandre batenean–, bi elizatan. Bi elizetako sarreran, gela, gure artean erasoan gogor dabilen mikrobio zitalaren erasoetatik babesteko. Barruan, lagunen arteko tarteak ondo zainduta: lau-bost metro luzeko aulki batean bi lagun, ertz batean bata eta bestean bestea; atzekoan lagun bakarra, aulki erdian; atzeko horren hurrengoan beste bi lagun, ertz batean bata eta beste ertzean bestea, eta horrela bi eta bateko hurrenkeran aulki guztietan. Bide batez: COVID-19ak ez zuen parterik izan bi heriotzetako batean ere.

Hileta-mezetan sermoia egiten du mezaemaileak, normalean labur samarra. Zendua eta familia ezagunak badira parrokian, hitzaldia luzetxoagoa eta zehatzagoa izan ohi da, eta, bihotzeko sentimenduz pixka bat goxatua; igartzen zaio horri. Apaizak ez badu ez hildakoaren ez senitartekoen inolako berririk, ordea, azalekoagoa, orokorragoa eta hilaren omenezko gorespen edo laudoriozko esaldirik gabea; izan ere, horrelakotan zer egingo du, bada, apaizak?, asmatzen ibili?

Orain urte batzuk, Enrique izeneko lagun baten aldeko hileta-elizkizunean nintzen. Elizan, hilaren ahaideengandik hur hartu nuen tokia. Apaizak *Kike* edo *Quique* esan zuen pare bat aldiz hitzaldi hasieran –hileta Euskal Herriko erderazko herri batean zen, jende askok izenak *qu*-ren ordez *k*-z idazten dituen herrietako batean–. Apaiza gazteleraz ari zen. Eta hilarekiko eta familiarekiko hurbiltasuna erakutsi nahian edo beste arrazoiren batengatik Enriqueren ordez *Kike* edo *Quique*, etxeko edo lagunarteko laburdura, erabiltzen hasi zen, eta hirugarrenez aipatu zuenean, zenduaren alaba batek, ahapeka, baxu, esan zion: *Enrique, Enrique*. Apaizak handik aurrera Enriqueka jarraitu zuen. Beharbada igandetako mezetan ikusia zuen zendua, baina elkarrekin sekula hitz egin gabekoak izan-edo... Ez zuen asmatu.

Bi hileta, bi sermoi. Ia beti adi entzuten ditut hiletatako sermoiak, eta azken bietakoak ere halaxe. Bai ahots bai hitz egiteko era ederrekoak ziren hizlariak eta, esaten zutenekin ados egon edo ez, ideiak argi azaldu zituzten. Horrela hitz egiten dutenei inbidia galanta diet nik, baina ez ailegatzen!

Hitzaldiak, biak, ildo berekoak. Bietan hildakoaren bizitzakoak laburtuta azaldu zizkiguten. Erlijioso apaizarenean, ez ziren falta izan laudoriozko hitz zehatz batzuk –ez asko–. Normala, eta, ziur asko, zeruratuak mereziak. Amama etxekoandrearenean, ez nuen laudoriozko hitz edo esaldi berezirik sumatu. Zenbait zertzeladaz ekarri zigun gogora emakumearen bizitza, samur baina apaindurarik gabe, bere hartan. Ba al da, bada, laudorio hoberik bizitza zintzo bete duen inorentzat, bere egin zuen bizimodu xumea, xalo-xalo azaltzea baino?

★★★

Barkua atera da portutik eta badoa, gero eta urrunago ikusiko dugu, gero eta txikiago, eta, halako batean, bistatik ezkutatuko zaigu. Pentsamendu hori frankotan etortzen zait gugandik baten bat joaten denean. Baina nola da benetan kontua? Hemendik alde egite hutsa al da?

Guri erakutsi ziguten hemen bizi ondoren zerua, garbitoki edo purgatorioa eta infernua genituela zain ezagueradun bataiatuok. Bataiatu gabe hildako ezagueradun gabeko umeak linbora joaten zirela, ez saririk ez zigorrik dagoen lekura. Toki horietara, han bizitzeko beti-betibeti. Betiko bizitza. Beste jende askok eta askok bestelako dotrinak ikasi ditu. Batzuek diote hurrengo bizitzan hegaztiedo arrain-edo, animaliaren bat izango direla; baziren hil eta gero belardi zabaletan ehiztari gustura biziko zirela sinisten zutenak, eta abar.

Gure zerua. Nola-hala irudikatu dezakedala uste dut. Bizitza honetan txintxo portatuak joaten dira hara, eta guztiak poz-pozik bizi dira, han dena gozagarri baitute. Lau bat urte nituela, gure etxe aurreko nire adineko neska txiki batek esaten zidan zeruan *konfitiak* jaten zirela. Behin ekarri zituen, bada, bola txiki-txiki batzuk, gorriak eta zuriak. Ez zitzaizkidan gustatu; ez nuen, hala ere, ilusioa galdu, esana baitzidaten –eta nik ondo sinistua– zeruan aingeruak zeudela eta beste lagun guztiak ere on-onak eta alaiak zirela.

Infernua. Leku txarra. Han, sutan kixkaltzen, hil ezinik eta betikotasun osoan horrela egon beharrean kristaua. Gehitxo ez al da? Uste dut *inpernuko* oinazeak zeruko pozak baino argiago irudikatzen ditugula. Asmatu zuenarentzat! Baina jende askok dio beldurra. «*Santa Maria, Jaungoikoaren ama, erregutu ezazu gu pekatarion alde orain eta gure heriotzako orduan. Amen.*» Heriotzako orduan, infernuko koronabirusak zain izango ote ditugu, ba?


Hildakoan norberarenak erabat egin badu eta esperotako zerurik ez bada, zer? Tristea? Ea hala ez den! Jaio aurreko bizipenik ba al du inork? Orduko kexarik? Hortaz, txar-txarra ere ez genuen izan gu sortu arteko milioika urteko aldi hura. Beraz, geroan ere antzeko. Baina infernurik ez, guk normal xamarrok ez, behintzat.

Ikusiko. Ikusiko? Bitartean, hala ere, bizitza onik handienetakoa dugu. Eta, bada, Arrate Irratiak urtebetetzetan opa ohi duena: urte on askotarako! ■

# Elikagaien xahutzea, amaierarik gabeko janari galera

Jon Arizkun
Hizkuntzalaria

*Food Waste-a da elikagaiak xahutzea izendatzeko ingelesez asmatu hitz bikoa. Sinesteak lanak baditu ere, Nazio Batuen Erakundearen arabera, munduko lau bazterretan gertatzen da delako xahutzea: diren eta ez diren kontinente guztietako gaitza da elikagaien galera.*



Noiznahi botatzen dugu janaria zaborrontzira. Batzuetan, gu geu gara platereko janari hondarrak zarametara jaurtitzen ditugunak. Beste batzuetan, geure buruari galdetzen diogu, saltoki handi bateko elikagai mordoa ikusirik, zer egiten ote den sobera den eta saltzen ez den jatekoarekin, bai baitakigu guztia kontsumituko duen gizarterik ez dela egundaino sortu. Horra egia ziertoa: alferrik galtzen dira elikagaiak.

### Elikagaien xahutze globala

NBEren ikerketen arabera, munduan urtean ekoizten diren fruta eta barazkien erditsua galtzen da alferrik.

AEBetan, esaterako, urtero, elikagai kopuru osoaren %30 xahutzen da; 32,5 bilioi euroren balioa, alegia. FAO Elikadura eta Nezakazaritza Erakundeak 2013an gidatu ikerketaren arabera, Latinoamerikan urtean alferrik xahutu ohi den elikagai kopuruak 300 milioi pertsona ere asetuko lituzke.

Europari gagozkiola, Erresuma Batuko etxeetan, adibidez, 6,7 milioi tona xahutzen dira urtero, hau da, erosi diren 21,7 milioi tonen herena; edo, beste modu batera esanda, erosten den elikagaien %32 ez da jaten. Beharrik, erosi arren, jan ez den elikagai horren ehuneko handi bat, %88, 5,9 milioi tona, biltzeko ohitura dute tokiko agintariek. Alferrik eralgitako elikagaietan gutiz gehiena, 4,1 milioi tona, edo %61, probestu eta jateko on zatekeen, zuhurtziaz erabili izan balitz.

Europak urtean alferrik galdu ohi duen elikagai kopurua 200 milioi pertsona asetzeko adinakoa genuke.

**«NBEren ikerketen arabera, munduan urtean ekoizten diren fruta eta barazkien erditsua galtzen da alferrik»**

Australiaz den bezainbatean, 2004an Australia institutuak egindako ikerketak erakutsi zuen herritarrek 10,5 bilioi dolar gastatu zituztela inoiz erabili ez edota zuzenean zaborretara jaurti zituzten eroskietan. Esan nahi baita, 5.000 dolar *per capita* baino gehiago, urtean.

Herrialde aberatsetan bezainbat, pobre direnetan ere nahizu xahutzen dira elikagaiak. Ororen gainetik, azpiegitura eskasari egotzi izan zaio xahutzea Afrikan: batean, janariak oker prozesatu eta lehortu direlako; bestean, egoera txarrean gorde direlako... Saharaz behereko Afrikan, uzta jaso ondoko janari galerak 4 bilioi dolarren balioa luke; hau da, 48 milioi pertsona elikatzeko bezainbatekoa litzateke.

Afrikako hainbat herrialdetan, ereindako zerealen %25 alferrik galtzen da. Fruta, barazki eta zereala bezain gogorrak ez diren laboreei dagokionez, are handiagoa da galera, eta %50 izatera ere irits liteke. 2006ko *Voices Newsletter* dugu kasu honetan informazio iturri.

Ekialdeko Afrikan, esne sektorean gertatu ohi den diru galera, dela esnea mindu delako, dela xahutu delako, 90 milioiren balioa luke, FAOren 2004ko datuen arabera. Iturri beretik edanez jakin dugu, adibidez, Kenian, 95 milioi litro esne galtzen direla urtero-urtero; 22.4 milioi dolarren balioa, alegia. Tanzanian, berriz, 59,5 milioi litro esne, ekoizpen osoaren %16 lehorte sasoian, eta %25, aldiz, eurite aroan. Ugandan, halaber, ekoizten den esnearen %27 galtzen da alferrik; 23 milioi dolarren balioa urtero.

Afrikan galtzen den elikagaiak 300 milioi pertsona asetuko lituzke, FAOk 2013an jakinarazi zuenez.

Asian, Txinak 50 milioi tona bihi eralgitzen ditu urtero, hau da, herrialdean

## NBE, EB, EAE

FAOren esanetan, giza kontsumorako diren elikagaien herena galdu edota alferrik galtzen da mundu osoan; alegia, urtean 1.300 milioi tona janari galtzen dira. Zenbateko hori mundu osoko zerealen uzta osoaren erdiaren baliokidea da, gutxi gorabehera.

2015ean, NBEk Garapen Jasangarriaren Helburuak argitaratu zituen. Helburu horietako bat da, adibidez, "erdira murriztea biztanle bakoitzeko xahutzen den elikagaien kopurua txikizkako salmentari eta kontsumitzaileei dagokienez, eta ekoizpen- eta hornidura-katean xahutzen diren elikagaiak ere murriztea".

Europak ere hainbat ekintza garatu ditu helburu horixe erdiesteko, eta hortxe da, besteak beste, Europako Batasunaren Ekonomia Zirkularraren Ekintza Plana, non elikagaien xahutzea jorratzen baita, edo 2016ko azaroan sortu zen Elikagaien galerari eta elikagaien hondakinei buruzko EBko plataforma. Euskadin, 2018an sortu zen eite bereko plataforma.

ekoizten den bihiaren %10. Estimazioen arabera, 200 milioi txinatar, esan nahi baita, populazioaren seirena elikatuko lukeen janari kopurua galtzen da urtean. Indian, zerealen galera ttipiagoa da, %10-12 artekoa, herrialdeko Elikagaien Korporazioaren datuek erakusten dutenez. Alabaina, 23 milioi tona zereal, 12 milioi tona fruta eta 21 milioi tona barazki galtzen dira urtero: 240 bilioi rupiaren balioa, gutxi asko. 2008an Indiako Elikagaiak prozesatzeko ministerioaren datuek ziotenez, 580 bilioi rupiaren balioa xahutzen zen urtero herrialdean.

Amaierarik ez duen elikagaien galera ez berria, mundua laztu, ikaratu eta larritzeko heinekoa.




## Elikagaiak xahutzearen kontrako neurriak

Garatzeko bidean dauden herrialdeetan, adibidez, elikagaien galera katearen lehen etapan gertatzen da gehienbat, eta uzta jasotzeko teknikei eta biltegi eta hozkailu instalazioei dagozkien mugak dira galeraren jatorri nagusi. Laborariak zuzenean lagunduz eta azpiegitura, garraio eta elikagaiak ontziratzeko industria sendotuz, hein batean janari gutxiago galduko litzatekeela diote adituek.

Herrialde garatuak direnetan, berriz, hornitze katearen ondoko etapan galdu ohi dira alferrik elikagaiak. Herrialde industrialduetan, gako dira kontsumitzaileen jarrera eta jokabidea. Hornitze katearen baitako aktoreen koordinazioa hobetzea beharrezkoa izateaz gainera, baitezpadakoak dira laborarien eta erosleen arteko akordiak. Baita industriaren, minoristen eta kontsumitzaileen sentsibilizazioa lantzea ere. Aldi berean, nahitaezkoa da elikagaiak zaborretara botatzeko joera makurra iraultzea, eta haiek egoki erabiltzeko modua asmatzea. Neurriok hinki-hanka eta zirristi-zarrasta ibili gabe baliatuz gero, elikagai galera hein handian murriztuko litzateke.

Europako Batasunaren baitan, 88 milioi tona janari xahutu ziren 2016an, hots, 143 milioi euroren balioa. Bistan dena, elikagaiak alferrik galtzea afera etiko eta ekonomikoa da, baina, horrekin batera, ingurumenean ditugun baliabide natural mugatuak agortzea dakar. Funtsezkoa da, beraz, elikagaien xahuketa geldiaraztea garapen jasangarria egiaz gauza dadin.

Ageri denez, elikagaiak alferrik galtzearen kontra eginez, gizarteak aldaketa klimatikoari ere aurka egingo lioke, elikagai galerak berotegi efektuari lotuak diren gasen emisioen %8 inguru sortzen baitu. Bestalde, elikagaiak sen onez gordetzeak eta behartsuen artean banatzeak munduan gosea eta desnutrizioa erradikatzea esan nahi du. Europako Batasunaz ari garela, kide diren herrialdeetan, 33 milioi pertsonak egun biz behin besterik ez dute kalitatezko jatordua egiteko era. Elikagaiak ez galtzea, azkenik, dirua aurreztearen sinonimo da laborari, enpresa eta etxeetan.

Esanak esan, elikadura katean parte hartzen duten aktore guzti-guztiek dute ikustekorik elikagaiak xahu ez daitezen: hala elikagaiak ekoizten eta prozesatzen dituztenek –izan laborari, janari fabrikatzaile edota prozesatzaile–, nola janariak kontsumorako gai izan daitezen lan egiten dutenek –ostalaritza sektorea eta minoristak, oroz gain–, eta, azken buruan, kontsumitzaileok. Europako Batzordearen esanetan, guztion ardura da elikagaien xahuketa galaraztea eta elikadura katearen jasangarritasuna areagotzea.

## Xahutzearen kontrako ekinbideak Europan

Europako Batzordearen arabera, eskutik gogor heldurik datoz elikagaien xahutzea murriztea eta jaten ditugun elikagaiak ekoizteko erabiltzen ditugun baliabideak alferrik galtzea. Ez xahutzea, janaria aurreztea da, dirua ere aurreztea, eta elikagaien ekoizpenaren eta kontsumoaren ingurumen inpaktua indargabetzea ez bada, apaltzea, bederen.

Garapen Iraunkorraren helburuetako bat betez, Europako Batzordearen eta Europako Batasuna osatzen duten herrialdeen konpromisoa zen, 2020rako, egun *per capita* xahutzen den elikagai kopurua erdira murriztea. Horrek elikagaien ekoizpenean eta hornikuntza kateetan elikagaien galera murriztea ekarriko luke, automatikoki.

Elikagaien galera eta hondakinak murrizteaz den bezainbatean, Europako Batzordearen proposamenak dira 2023rako elikagai xahutzearen maila finkatzea Europako Batasun osoan, eta Batzorde beraren arauak berrikustea data markatzeari dagokionez, «Hobea data baino lehen» eta «Data arte jangarria» etiketen bidez.

«Hobea data baino lehen» etiketaren esanahia da adierazitako eguna eta gero jangarri dela elikagaia, nahiz eta, biltegiratzeko argibideak errespetatu badira eta ontziak kalterik jaso ez badu, zaporea eta ehundura galtzen hasita egon daitekeen. Etiketa hori hozkailuan nahiz izozkailuan gorde ohi diren elikagaietan ageri ohi da, baita pasta, arroz, kontserba, landare olio, txokolate eta bestelakoetan ere.


Kontsumitzaileon egitekoa izango da ontziak osorik dauden eta janariak itxura, usain eta zapore ona dituen egiaztatzea, zaborretara ezer bota aurretik.

Etiketa hau duen janaria irekiz gero, argibide guztiak jarraitu beharko dira; alegia, «ireki eta hiru egun igaro baino lehen jan», edota gisako oharrak.

«Hobea data baino lehen» etiketadun janariak, bertan adierazten den egunera arte eusten dio osorik bere kalitateari.

«Data arte jangarria» etiketari dagokionez, elikagaia segurtasunez noiz arte jan daitekeen adierazten du. Ondorioz, etiketak ageri duen data igaro eta gero ez da jangarri.

Etiketa hau oso galkorrak diren janarietan agertzen ohi da, dela arrain freskoan, haragi xehatuan eta beste zenbaitetan.




Janari hauei dagokienez, baitezpadakoa izango da biltegiratzeko argibideak zuzen betetzea. Esate baterako, «gorde hozkailuan» edo «gorde 2-4 °C-tan». Horrela egin ezean, janaria azkarrago hondatuko da eta intoxikazio arriskuan izan gintezke.

Janaria erosi ondoren etxean laster izoztuz gero –behar bezala izoztuz gero, betiere–, etiketak agintzen digun egunetik harago iraunaraziko diogu jangarritasuna dena delako elikagaiari. Hala eta ere, paketeak agintzen dituen argibideak zuzen jarraitu beharko ditugu; adibidez, «izoztu, dataren egunera arte», «izozturik egosi» edo «ondo desizoztu erabili aurretik, eta 24 ordu baino lehen erabili».

"Data arte jangarria" dioen elikagaia ireki ondoren, biltegiratzeko eta erabiltzeko argibideak jarraitu beharko dira: "ondorengo hiru egunetan ireki", adibidez.

"Hobea data baino lehen" eta "Data arte jangarria" etiketak elikagai ontzietan ageriz eta haiek zuzen ulertuz, Europako Batzordeak dio elikagaiak xahutzea galaraziko dugula eta, era berean, dirua aurreztuko dugula.

**«EBn, 33 milioi pertsonak egun biz behin besterik ez dute kalitatezko jatordua egiteko era»**

## EAE

Arestian esan dugunez, Europako Batzordearen eta Europako Batasunaren konpromisoa zen, 2020rako, egun *per capita* xahutzen den elikagai kopurua erdira murriztea. NBEri dagokionez, bestalde, Nazio Batuen Erakundearen helburua da, 2030erako, txikizkako saltokiek eta kontsumitzaileek urtean xahutu ohi duten elikagai kopurua erdira murriztea.

Euskal Autonomia Erkidegoaz den bezainbatean, duela bi urte, 2018ko urrian, Elikagaien Xahuketaren aurkako Plataforma sortu zuen Elika Fundazioak. Egun, 100 enpresa eta erakunde baino gehiago biltzen ditu Elikak, xahuketaren kontrako borrokan indarrak biltzea eta koordinatzea xede harturik. Aurten berean, gizarteari eta erakundeei zuzendutako hainbat jarduera gauzatu dira, elikagaien xahuketa murriztea helburu, hau da, EAEn, pertsonako eta urteko xahutzen den elikagai kopurua 180 kg-tik 90 kg-ra apaltzea.

Elika Fundazioaren arabera, «Murriztu, berrerabili eta birziklatu» da banakook geure egin behar dugun konpromisoa, kontsumoa egiaz iraunkorra izan dadin. Bide horretan, www.zerodespilfarro.eus webgunea abiarazi du aipatu Elika Fundazioak, nahi beste informazio eta tresna praktikorekin.

Elikagaien Xahuketaren aurkako euskal Plataformaren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan urtean 350.000 tona elikagai baino gehiago galtzen dira alferrik, hau da, pertsona bakoitzeko 160 kilo. Eta, hain zuzen ere, etxeetan xahutzen da elikagai gehien.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak emanak dituen aholkuen arabera, berriz, erosketak planifikatzea eta mailakatzea estrategia lagungarriak dira gure ekonomia hobetzeko eta, aldi berean, elikagaien xahutze arriskua murrizteko. Elikagaiak hozkailuan eta janaritegian egoki antolatzea edo «soberakinen menu»




**«EAEn urtean 350.000 tona elikagai baino gehiago galtzen dira alferrik, 160 kilo, pertsona bakoitzeko»**

ohi direnak prestatzea ere ohituretan txertatu beharreko estrategiak dira Kontsumobideren gomendioek diotenez.

Kontsumobideren aholkua da, bestalde, jatetxeetan egiten diren ospakizunetan kontsumitu ez dugun janaria etxera eramateko ontzi batean jar diezaguten eskatzea. Elikagaiak xahutzea beharrezkoa ez den gastuaz harago doa, eta arazo etikoa baino gehiago ere bada, goseak bizi diren milioika pertsonak hortxe baitira beti. Gainera, lehen mailako arazo ekologikoa da, bai elikagaien produkzioan kontsumitzen diren baliabideei dagokienez, bai xahututako elikagaiak prozesatzeko baliabideei dagokienez ere.

Kontsumobideren irudiko, hala eguneroko bizian nola jai egun handietan, menuak planifikatzea komeni da, erosketak mailakatzea, eta haiek egiazko behar eta premietara egokitzea. Horrela jokatuz gero, etxeko gastua kontrolatuko dugu eta, aldi berean, kontsumo arduratsua sustatuko.

Eta gogoan hartu beti, etxean ez beste inon xahutzen dela elikagai gehien. ■

## Too Good To Go, HoFo...

Elezahar itxura du, nahi izanez gero. *Too Good To Go* plataformako kideek oraingo egunean kontatzen dutenez, buffet batean ziren elikagaiak xahutzen zirela beren begiez ikusi zutenean. Nonbait ere, kontsumitu ez zen janaria zaborretara nola botatzen zuten ikusi zuten. Deskalabrukeria hark mugiarazi zituen eta horrelaxe sortu zuten *Too Good To Go* izeneko aplikazioa. Harrezkero, hortxe dira beste zenbait ere, dela *HoFo (Hope Food), WeSaveEat, NoFoodWaste*...

*Too Good To Goz* den bezainbatean, 2016az gero ari da lanean, egunero gertatzen diren janari soberakinak kudeatzen: haiek merke zurrean erosten eta kontsumitzen, alferrik gal ez daitezen.

Lau urte honetan, *Too Good To Goren appak* —dela iOSen, dela Androiden—, 9,5 milioi erabiltzaile bildu ditu, 17.000 ostatu, jatetxe edota janari denda elkartu, eta 10.092.382 janari pakete baino gehiago banatu: alferrik galtzetik salbatu, alegia. Ireki artean ezin izaten da jakin zer datorren 2 eta 5 euro artean balio duten paketearen barruan, aurrez ez baitago jakiterik zer soberakin izango duten dena delako establezimenduan.

Erabilera, ohikoa da: aplikazioan izena eman, zerrendako denda, jatetxe edo supermerkatua hautatu, eskaria egin, aplikazio bidez ordaindu eta janaria jaso toki eta ordu jakinean.

Alferrik galtzen den janaria zero izan dadin, ekoizten den janaria kontsumitzen den janaria izan dadin.

# Miren Basaras

## EHUko irakaslea, mikrobiologoa

# *«Ikus dezagun nola eboluzionatzen duen bigarren olatuak, ez dezagun hirugarrenik izan»*

Miel A. Elustondo – Zaldi Ero



Azaroaren amaieran egina da elkarrizketa, hanka bat 2020ko martxoan eta bestea 2021ekoan genuela. Miren Basarasek aintzat hartu zizkigun galdera guztiak, iragan hurbiletik orainera eta ondoko etorkizunera zubiak eginez. Beharrik, ongi zaildu eta trebatu du bizi dugun, bizi gaituen pandemiak. Euskarazko hedabideetan egin ohi dituen askotariko kolaborazioak dira froga. Jendaurrera egin du zientzialariak, lehen lerrora egin du jauzi.

**Esango diguzu pandemiaren zein arotan gauden?**

Pandemian murgilduta, ez dago besterik. Duela urtebete ezagutzen dugu birusa. *Pandemia* hitza, berriz, martxoan hasi ginen erabiltzen. Birus kasu bat-bateko haiek, han eta hemen agertzen hasi zirenak, bateko Txinan eta besteko munduko lau bazterretan, pandemia baten hasieraren iragarpen ziren. Orain, berriz, pandemian murgilduta bizi gara. Eta halaxe izango da ondoko hilabeteetan, eta urtean. Egoera oso larria da, milioika kasu gertatu dira munduan, eta egunero, berriz, milaka kasu berri ari dira agertzen, eta hainbat pertsona hiltzen, baita gure artean ere. Eta halaxe jarraituko dugu ondoko hilabeteetan, zoritxarrez.

**Jakitun gara pandemiaz, baina ez dakit jabetzen ote garen, egiaz, egoeraren larriaz.**

Ezetz esango nuke, ez garela jabetzen edo ez garela kontziente. Gizartea, oro har, lasaitu egin da. Kopuruak entzuten ditugu, eta kopuru bezala ikusten ditugu, eta ez pertsona bezala kontsideratzen. «500 kasu berri gertatu ziren atzo EAEn. Lehengo astean, 97 hil ziren birusak jota». Horrelakoak entzun, eta, zenbaitek ez dio behar besteko garrantzirik ematen albisteari. «97, ez da asko ere!». Ez gara jabetzen datu horiek pertsonak adierazten dituztela, gaixoak eta familiak. Oso gauza larria da.

**Birusak faserik izan du 2020ko martxotik hona?**

Ez dago faserik. Hasieratik bertatik ikusi genuen zetorrena. Egia da orduan ez genekiela birusa nola transmitituko zen, arin edo mantso... ezta transmisiokortasun handikoa izango zen ere. Dena dela, otsailaren amaieran, martxoaren hasieran, garbi ikusi genuen gaitz larria zela, eta larritasun horrek bere horretan iraungo zuela udako sasoi bat edo beste gorabehera. Alegia, ezin ginela momentu batean ere erlaxatu. Hala ere, lehen olatua apaldu zenean, kasuistika gutxitu zenean, udan egoerak hobera egingo zuela esaten hasi ziren batzuk, beroak egoera arintzen lagunduko zuela, eguzkiak birusa suntsitzen lagunduko zuela... Hamaika horrelako entzun behar izan genituen. Ni, zeharo harrituta nengoen. Ezetz esaten nuen, birus berria zela, eguzkiak ez ziola indarrik kenduko, nahiz udan beroa egin, gurekin izango genuela birusa, ezin genuela lasaitu. Ez nuen dudarik birusa arazo handia zela, eta arazo handia izaten jarraituko zuela.

**Zure iritziko, bada lasaitu gabe, zuhur eta azti jokatu duen herrialderik?**

Asiako zenbait herrialdek asmatu dutela esango nuke. Hego Korea, Vietnam, Zeelanda Berria, Australia... Herri horiek arin lortu dituzte emaitzak. Baina lan itzela egin dute. Kasu bakar bat agertzeak konfinamendua zekarren. Zeelanda Berrian, azaroan, kasu bat agertu zen Auckland hirian. Bada, hiri osoa konfinatu zuten. Neurri zorrotzak hartu zituztela, alegia. Hego Korean, berdin. Lehen olatua iritsi zitzaien, eta neurri bortitzak hartu zituzten, oso konfinamendu gogorra. Ondoren, erlaxatu ziren, ireki zituzten ostatu eta diskotekak; kasuak ugaritu ziren berriz, eta atzera itxi zituzten denak. Eta hasi ziren test masiboak egiten, behar ziren guztiak.

**Baheketa masiboak-eta, esan nahi duzu.**

Bai. Esan behar da, hala ere, herrialde horietan gurean ez bezalako irizpideak dituztela. Jendeari esaten diote: «Etxean gelditu, mesedez». Eta etxean gelditzen da jendea. Hemen, EAEn nahiz Europan, oro har, «Etxean gelditu, mesedez» esan, eta ez dugu kasurik egiten, behartu egin behar izaten gaituzte, neurriak hartu edota bete ditzagun. Sarritan ez dugu aholkurik betetzen. Dena dela, horretan ere, Europako zenbait herrialdek beste batzuek baino zuhurrago jokatu



## Miren Basaras

EHUko Mikrobiologiako irakasle titularra da Miren Basaras Ibarzabal (Derio, 1968). Biologia ikasketak euskaraz egina EHUn, Mikrobiologian espezializatu zen. C hepatitisari buruzkoa du doktore tesia eta, hain zuzen, C hepatitisaren birusa aurkitzeagatik jaso dute aurten hiru ikertzailek Medikuntzaren Nobel saria. Birusak, bakterioak, txertoak, antimikrobianoak, botikak... ditu Miren Basarasek ikergai. EHUn, tesi zuzendari Ramon Cisterna izan zuen, eta du, mentore eta kolaboratzaile. Edinburgoko unibertsitateko Birologia departamenduan ere ikerketan jardun zuenez, Peter Simmons izan zuen han gidari.

Medikuntza fakultateko irakasle den aldetik, eskolak ematen ditu Medikuntza graduan, bai master eskolak ere, doktorego tesiak zuzentzearekin batera.

Koronabirusak "koroatu" du euskarazko hedabideetan, Euskadi Irratian eta *Berria* egunkarian egin ohi dituen kolaborazioak tarteko.

# Medikuntza fakultate berria EHUk

«Fakultate berria egitea aurreikusia du EHUk, Basurtuko ospitalearen ondoan. Proiektua aurrera doala dirudi, dirua ere asignatuta dagoela, baina pandemia tartean dela, ez dakit helduko den. Dirua ez da amaiezina, eta diru asko eta asko ari gara erabiltzen pandemia hau kontrolatzen. Baheketek eta frogek ikaragarrizko gastua dakarte, eta gaixoak ZIU unitateetan edukitzea sekulako inbertsioa da, gaixoak zaindu behar direlako, eta langileak ere babes neurri bereziz hornitu behar direlako. Dirutza ari gara inbertitzen pandemia kontrolatzen; ez dugu kontrolatu, eta oraindik dirutza inbertitu beharko dugu horretan. Eta, bestalde, dirutza inbertitu beharko dugu botikak eta txertoak ordaintzen».

dute, eta hor da Alemania beraren kasua. Hortxe ikusi da, inoizko garbien, agintariek eta politikariek duten garrantzia. Alemanian ere kutsatu kasuak gertatu dira, baina gurean baino askoz gutxiago. Aldiz, neurri zorrotzagoak hartu dituzte. Agintariek garbi esan zuten: «Ez dugu egoera kontrolatzerik lortuko, populazioaren ehuneko handi bat immunizatzea lortzen ez badugu». Hemen, aldiz, bestelakoa izan da mezua: «Gabonetan, agian... Urtarrilean, agian... Otsailean, beharbada...».

**Mezu kontraesankorrak, alegia.**

Bai, eta nahitaezkoa da gizarteari mezu argiak helaraztea, hainbeste atzera-aurrera ibili gabe. Hor da, adibidez, azaroan espainiar ministro batek txertoari buruz esandakoak: urtarrilean ia denak txertatuak egongo ginela. Harrigarria egin zitzaidan. Laster egin behar izan zuen atzera. Orduan, udarako txertatuta egongo garela esan zuen. Baina udan ere ez da horrelakorik gertatuko! Mezu horiek ez dute batere laguntzen.

**Alemania aipatu duzu arestian, baina han ere nahiko lan ibili dute. Manifestazioak eta gainerakoak izan dira, neurri zorrotz nahiz kamutsen kontra, dena delako neurriek pertsonaren eskubideak murrizten dituztela eta hau eta hura. Negazionistak ere hor dira beti...**

Bai, hor dira beti mugimendu horiek, edota musukoen erabileraren kontrakoak. Hala ere, zein da errealitatea? Zer nahi dugu, jendea milaka ari da hiltzen, eta are eta jende gehiago hiltzea? Ez buru ez buztan du horrek. Agintariek ezarritako neurrien kontrako protestak logikoak dira, hein batean, orain arteko bizimodu eta askatasuna murrizten dizkigutelako, baina osasun arazoa inoizko edo aspaldiko larriena da, eta horrixe soluzio ematea dagokigu, ahalik eta hoberen, ahalik eta arinen.

**Nola bizi izan zenuen 2020ko martxoa, COVID-19aren etorrera hura?**

Bazetorrela ikusten nuen. 2019ko abenduan, zenbait berri jaso genuen. Zioten Txinan gaixotasun berri bat, birus berri bat azaldu zela. 2020ko urtarrilaren 7an, master eskolak eman nituen hemen [EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean]. Birusei buruzko ikastaroa izan zen, eta esan nien ikasleei: «Jakin ezazue Txinan gaixotasun berri bati antzeman diotela. Ea ondoko egunetan berri gehiago izaten dugun». Bi asteko master ikastaroa zen, eta tartean baieztatu ahal izan nuen: «Birus berri baten aurrean gaude. Ikusiko dugu nola eboluzionatzen duen. Jakin ezazue, behintzat, hortxe dela». Laster ikusi genuen, urtarrilean bertan, eta otsailean, denbora laburrean bi ospitale eraiki zituztela Txinan. Kezkagarria zen egoera. Bestalde, orduko informazioak ez zioen birusa oso kutsakorra zela, erraz transmititzen zela. Horrelakorik ez zitzaigun heldu. «Kontrolatuta edukiko dute, beharbada!», pentsatu genuen. Handik laster, Italian ere kasuak agertzen hasi zirenean, akabo! «Ziur guregana ere ailegatu dela!», esan nion neure buruari.

**Inork espero zuen horrelako olderik?**

Beharbada, ez. Beharbada, birusik ere ez zuen inork espero. Dena dela, urtero zabaltzen zen pandemia arriskua. Bazitekeela, esaten zen. Historian zehar, pandemiak behin eta berriz etorri dira. Hortxe dira gripearen birus ezberdinak, Asia aldetik edota Txinatik bertatik etorri ohi direnak. «Agian, birus hauxe izango da pandemia eragingo duena», esaten ohi zen. Beldur edo kezka hori ez da berria, gripearen birusa oso aldakorra baita, eta mota askotakoak baitaude. Horietako zenbait birusek animaliengan du jatorria, eta Txinan, adibidez, milaka animalia hiltzen dituzte horrelakorik gertatzen denean: milioika oilo hil izan dituzte, gaixorik daudelako, eta haien gaitza gizakiei transmititu ez diezaguten.

**Hara! Urterokoa da, hortaz, pandemia arriskua?**

Halaxe esan izan da. Kasu honetan, uste zen pandemiaren arriskua gripearen birus batek ekarriko zuela, ez koronabirus

batek. Bestalde, egia da 2002an nahiz 2012an beste zenbait koronabirus ere agertu zirela. 2002ko koronabirus hark, SARS izenekoak, pandemia eragingo zuela uste izan zen, baina, zorionez, haren transmisio mekanismoa halakoa zelako, eta kutsatzen ziren pertsonek erakusten zituzten sintomak ere halakoxeak zirelako, birusa kontrolatu ahal izan zen. Oraingo COVID-19ari dagokionean, arazoa izan da asintomatiko asko izan ditugula. Alegia, nola jakin horiek kutsatuta dauden ala ez? Eta hasieran ez genekien zein garrantzitsua den asintomatikoen eragina. Uste zen, batik-bat sintomatikoek transmititzen zutela birusa. Eta horiengan jarri zen indarra, nahiz eta gerora agerikoa izan den asintomatikoek ere transmititu ahal dutela birusa. Hori ez da gauza berria. Hainbat birus transmititzen dira asintomatikoen bidez.

**Konpara daiteke COVID-19ak eragindako pandemia aurrez ezagutu izan diren beste birus batzuek eragindakoekin?**

Oraingo egoera eta aurrekoak, denak dira pandemia. Horretan dira antzekoak. Gainerakoan, birus ezberdinak dira, eta lehengo eta oraingo baliabideak ere ezberdinak dira. Bestalde, kasu honetan lortu da birusa berehala identifikatzea. Aurrekoetan, urteak behar izaten ziren birusa identifikatzen, hilak izaten ziren, baina ez zen gauza handirik egiten. Orain besterik da. Baliabide guztiak ditugu, eta birusaren genoma laster batean ezagutu ahal izan dugu, berehala jarri gara botikak eta txertoak sortzeko bidean, eta diagnostikoak gauzatzeko teknikak ere –PCRak eta beste– gaur egungo kontuak dira. Lehen ez zen, adibidez, inolako diagnostiko mikrobiologikorik egiten. Askoz ere baliabide hobeak ditugu gaur egun, dudarik gabe.

**Baina hainbeste heriotza izan da inoiz?**

Pandemiak pandemia dira beti. Pandemia batzuetan hildako asko izaten dira, eta beste batzuetan, aldiz, gutxiago. Baina hiesa ere pandemia da. Kontua da hiesaren birusa ez dela arnasbideetatik transmititzen. C hepatitisa ere pandemia da, odolaren bitartez transmititzen dena. Gripea eta oraingo koronabirus hau arnas tanten bidez transmititzen direnez, askoz ere errazago transmititzen dira, zeren eta, hitz egiten ari naizela, birusa nire ondokoari transmititu ahal baitiot, besterik gabe.

**Maskararen erabilerari buruzko zalantzak, distantziak mantendu nahi eta ezina, osasuna, batetik, eta ekonomiaren osasuna, bestetik. Aski anabasa eta mezu kontrajarri izan da pandemiaren kudeatzean.**

Mezu kontrajarriak ez dira onak. Musukoek ez zutela babesten esan izan zen garai batean, nahiz arazoa besterik zen: ez zegoela denontzat behar hainbat maskara. Zerbait esan behar zen. Martxoan jakina genuen birusa arnasbideetatik transmititzen zela, eta horri kontra egiteko modurik onena zela maskara erabiltzea eta eskuak sarri garbitzea. Argi eta garbi, bi neurriak funtsezkoak ziren, eta, hirugarrena, distantzia mantentzea. Besterik da zein ziren baliabideak, zenbat maskara genituen eta zein ziren lehentasunak. Alegia, osasun langileek eta pertsona zaurgarrienek zutela lehentasuna. Gainerakook zain egon behar genuela. «Maskarak ez dira beharrezkoak, ez dago frogatua ezertarako balio duten!». Ez zen egia, eta ez da egia, baina garai hartan ez genuen behar beste maskararik. Mezu kontrajarriek gizartea nahastu baino ez dute egiten.

**Horren aurrean, zer egin lezake zientzialariak?**

Ahal dugun neurrian mezu egokiak kaleratu, kasu nork egingo duen inoiz ez dakigun arren. Besterik da hori. Gogoratzen dut udaberrian esaten nuela: «Ez pentsa birusa udan kontrolatuko dugunik. Ez pentsa eguzkiak birusa ahulduko duenik. Ikusi besterik ez dago Brasil: milaka pertsona ari dira hiltzen. Eta berdin Indian. Bero handiko herrialdeak diren arren, milaka dira hildakoak». Hala ere, horixe zabaldu zen, birusak atzera egingo zuela udako beroan. Are okerrago, ustezko zenbait adituk ere horixe esaten zuten. Aditu asko sortu baita orain, eta zernahi esaten dute.

**Zer egiten duzu batean edo bestean gisako ustezko adituak gertatzen zaizkizunean?**

Kasurik ez. Gaur egun nornahi izan daiteke aditu. Alde batetik, agintariak daude, beren lana egin behar dutenak. Bestetik, adituak, hau da, gaur egun,

## Euskara EHUn

«Erronka galanta dugu euskararena unibertsitatean! Lehen baino gehiago ezagutzen da euskara, baina ez da gehiago erabiltzen. Euskaraz ikasi nuen Biologia, eta ordurako gehiena euskaratuta zegoen. Euskal lerroan 30 ikasle gintuzun, eta beti euskaraz ari ginen gure artean. Orain, aldiz, gradu gehienetan nabarmen handitu da euskarazko lerroa, ikasle kopuruak gehiago dira euskarazko lerroetan gaztelaniazkoetan baino, baina euskararen erabilera ez da hazi. Ikasleen zein irakasleen artean gehien entzuten dena ez da euskara».

edonor. Berdin, txertoei buruz ari direla ere. «Udaberrirako, errealitatea izango da taldeko immunitatea». Alegia, gehiengoa immunizatuta egongo dela. Hori entzun eta, «Nola esan lezake horrelakorik, ordea?», esaten nion neure buruari. Eta "aditu" moduan ari zen! Nahiz eta txertorik onenak eduki, taldeko immunitatea lortzeko behar bezainbat txerto ez dugu izango. Zertan ari dira, orduan?

**Usteko zenuen duela urtebete, orain duzun ospea izango zenuela? Nolabait esatearren, mediatiko izango zinela?**

Kar, kar... Ezta pentsatu ere! Kultura Zientifikoko Katedraren Zientzia Kaiera blogean hartzen dut parte. Uxunek [Martinez] esan zidan: «Miren, entzun duzu birus berriarena?», eta nik: «Bai, zerbait idatzi, ez idatzi, pentsatzen ari naiz». «Idatzi, idatzi!», berak. Urtarrilaren bukaeran argitaratu zen artikulua blogean. Handik atzera, etengabea izan da: batean hitz egin, bestean idatzi... Orain urtebete esan izan balidate, ez nukeen sinetsiko. [2020ko] Urtarrilean blogean idatziaz, Uxunek esan zidan: «Badakizu zure artikulua Japonian ere irakurri dutela?». «Zer diostazu baina?!». Nonbait, euskaraz zekien baten batek irakurri zuen Japonian, itzuli zuen, eta zabaldu zen.

**EHUren *Campus*a aldizkariaren urriko alean, Ignacio Lopez-Goñik eta Juan Ignazio Perez Iglesiasek zioten udaberrian Espainiar Estatua izan zela COVID-19aren kasu eta heriotza gehien izan zituen herrialdeetako bat. Eta, gero, berriz: «Espainian 2020ko udan gertatu dena izugarrizko porrot kolektiboa izan da».**

Bai. «Mesedez, etxean gelditu», esan digute, eta guk kasurik ez. «Tabernetan, distantziak mantendu!». Eta guk ezer ez. Esan beharrekoak esan dizkigute. Deseskalada agindu zutenean, «Halako eta halako lekuetara joan zaitezkete...» esan ziguten, eta denok haraxe, zoro moduan! Aholkuak ere eman dizkigute, baina ez ditugu bete. Ez dugu gizarte modura erantzun. Agintariek baliabide gehiago eman ahal zituzten. Martxoan, esatera, test masiboak behar ziren, orain egiten ari diren baheketak. Garai hartan egin behar ziren! Teknika aintzat hartzeko modua abiarazi zuen EHUk, jendea testatzeko, eta boluntarioak ere bagenituen. Agintariek, aldiz, ez zuten egokiera baliatu. Pandemia kudeatzean, denok dugu erruaren zama zati bat.

**Txertoaren bila abiatu zen industria, nork bere bidetik. Bataren eta bestearen txertoaren etorrera iragartzen ari zaizkigu, haietako bakoitzaren eraginkortasunaz eztabaidatzen... Zergatik ez dira indarrak bildu ahalegin horretan?**

Enpresa farmazeutiko ezberdinak egotea ona da, zeinek bere txertoa garatzea esan nahi dut. Era horretara, baliabide ezberdinak abiarazten dira, bakoitza puntu ezberdin batetik doa helbururantz. Hori ez da txarra. Birus honek erakutsi du gauza onik: birusari izena eman, eta berehala kaleratu zuten genoma, [2020ko] urtarrilaren 12an. Gauza ona, izan ere! Zientzialari eta enpresa farmazeutiko guztiei jakinarazi zieten hori. Beste batzuetan, ezagutza horri etekina atera nahi izaten dio bakoitzak, nor bere bidean ibiltzen da genoma ikertzen eta txertoa sortzen, eta ondoren heltzen da informazioa gainerako instantzia publiko guztietara. Kasu honetan ez da horrela jokatu, zientzia partekatu egin baita; mundu guztiari zabaldu zitzaion genomari buruzko informazioa, denak ere botikak eta txertoak bilatzen has zitezen.

**Txerto dibertsitatea ontzat ematen duzu, hortaz.**

Ona da lan horretan enpresa ezberdinak jardutea: baliteke batzuek beste batzuek baino emaitza hobeak lortzea arlo jakin batzuetan, batzuk besteak baino arinago ibiltzea, halako txerto jakin bat eraginkorragoa izatea adin jakin bateko pertsonentzat... Txerto ezberdinak izatea ez da txarra, ona baino. Besterik da nola gauzatuko den hori. «Nireak %90eko

## 20:OOETAN TXALO

«Osasun profesionalei aitortza egitea, eskerrak ematea, oso ondo iruditzen zait. Baina, bestalde, txaloak jotzen dituen horrek berak kalera irten eta neurririk ez betetzea, eta baliabide gehiago ez eskaintzea ere! Nekatuta daude, eta haserre, eta grebak izan ziren irailean. "Txalo gutxiago eta baliabide gehiago!" esanez bezala. Kontziente izan behar dugu. Langileei aitortza eta esker ona adierazi, horixe baietz. Oso egoera txarrean lan egin zuten, baita babes neurri egoki edo batere gabe ere, eta horrela kutsatu ziren hainbat langile, eta hil ere bai. Birusak hildakoak oroitzea halako egun jakin batean ontzat ematen dut, baina hau ez da egun bateko gauza. Egunero ari dira hiltzen pertsonak, oso gauza larria da. Egunero ari da jendea kutsatzen, zahar-etxeetan eta zahar-etxe ez direnetan. Eta nola jokatu behar dugun jakinagatik ere, arriskua nola saihestu baldin badakigu ere, ez dugu behar den guztia egiten. Horretan indar egin behar dugu».

eraginkortasuna du», «Nireak, %95etik gorakoa». Enkante itxura ere badu horrek, eta ez dut uste horrelakorik komeni denik. Horretan, nire iritziz, eta zientziari dagokionez, ez da zuzen jokatu. Honenbestez, espero dut agentzia erregulatzaileak bere lana egitea, txertoen eraginkortasunari buruzko emaitzak egiaztatzea, eta txertoa ahalik eta arinen jartzea merkatuan. Eta, betiere, txertoak seguruak eta eraginkorrak direla ziurtatu. Hainbat botika eta txertorekin egin den moduan egin behar du lan hori agentzia erregulatzaileak. Agentziak dena delako produktu bat –txertoa, kasu honetan– onartzen badu, esan nahi du haiek aztertutako datuen arabera, txertoa segurua dela. Nahitaezkoa da gardentasuna.

**Eta ez du ikustekorik izango txertoa Alemaniako, AEBetako, Txinako edo Errusiako enpresa batek asmatua izatea? Herrialdeen arteko lehiarik ez da?**

Ez. Hala ere, munduan agentzia erregulatzaile ezberdinak ditugu, eta AEBetan, esaterako, bertako agentziak baimenduko ditu han erabiliko diren produktuak. Europan beste agentzia bat dugu, eta berak onartuko ditu hemen erabiliko diren produktuak. Eta, bestalde, gertatu izan da zenbait produktu baimendurik egotea AEBetan, eta ez Europan, adibidez.

**Ikasi dugu pandemia egoeran bizitzen?**

Lehenengo olatutik bigarrenera, ez dugu askorik ikasi. Lehen olatuan egin izan genituen oker berak egin ditugu bigarrenean, aholkuak bete ez baititugu; tabernetan, adibidez. Zer egin behar izan da? Ostalaritza berriro itxi. Bagenekien pertsonen arteko mugimenduak birusaren transmisioa areagotzen zuela, lehen olatuan ikasi genuen. Haatik, bigarren olatua etorri, eta lehenengo hartan bezala jokatu dugu: batetik bestera mugitu gara, honekin eta harekin egon gara. Lehen olatuan ikasi genuen dendara joan eta ordaintzeko garaian, ilara osatu eta distantzia gordetzen. Orain, non da distantzia hori? Askotan ez dago. Bati baino gehiagori esan behar izan diot: «Nire ondoan zaude. Distantzia». Harri berean tupust egiten ari gara... Gogoeta bat egingo nuke: gizakia munduaren lehena balitz bezala jokatzen dugu, munduaren erdigunea bagina bezala. Ez gara jabetzen aldi bateko gaudela, iragankor garela. Badira beste "izaki" batzuk, mikroorganismoak –birusak barne direla, adibidez– beren papera dutenak, garrantzizko rola munduan. Horretaz jabetu behar dugu. Ez gara munduaren erdigunea, eta alferrik ari gara uste horretan baldin bagaude.

**Pandemiaren zein puntutan egongo gara otsailean, jakin baliteke?**

Puntu berean. Okerrago ez egotea espero dut. Hobekuntza handirik ez dut aurreikusten hemendik urtarrilera edo otsailera bitarte. Kasu positiboak izango ditugu oraindik. Neurriak arintzen badira, espero dut gizarteak ez uste izatea egoera konpondu dela. Ez gaitezen itzuli udan gertatu zen hartara, lasatze hartara. Babes neurriak zorrotz bete behar ditugu, urtarrilean, otsailean eta ondoko hilabeteetan! Espero dezagun urte hasiera aldera txertoren bat izatea. Txertoak izanagatik ere, ez uste dena konponduko dugunik. Gauzak poliki-poliki eboluzionatuko du. Nik uste dut datorren urte osoan ere arazo handiak izango ditugula. Ikusiko dugu 2021aren amaieran nola gauden. Txertoak nola garatzen diren, horrexek erakutsiko du lasaitu gaitezkeen ala ez.

**Gizartea zentzatuko da, babes neurriak zorrotz betetzen hasiko da noizbait?**

Ikusi dugu zein den gizartearen jokabidea! Orain arte ikusitakoa ez da oso esperantzagarria, zoritxarrez! Ez nuke hirugarren olaturik nahi, horixe ez nuke nahi! Neurriak zorrotz ez betetzeak berehala igoarazten du positiboen kopurua, horren jakitun izan behar dugu: intzidentzia metatu txiki batek berehalaxe dakar intzidentzia metatu handia. Bi-hiru astetan! Horrek are neurri zorrotzagoak hartzera behartuko lituzke agintariak. Ikus dezagun nola eboluzionatzen duen bigarren olatu honek, eta baretzen denean –noiz baretuko den inork ez dakien arren–, ez dezagun hirugarren olaturik izan! ■

## Sufrimendua erakutsi

«Lehen olatuaren garaian, martxo-apiriletan, hedabideetan erakusten ziren irudietan ez zen jendearen sufrimendurik ikusten, nola ari ziren gaixoak hiltzen. Irudi haiek erakutsi egin behar zirela uste dut, erakutsi jendea bakarrik hil dela, gorriak ikusita. Ezin da estali gertatzen ari dena, eta, nonbait, badirudi gauza batzuk estali egin direla, gizarteari sufrimendua ez erakustearren. Zer nahi dugu, bada? Arrosa koloreko mundua? Ez, bada! Errealitatea krudela da. Izeko batekin bizi izan naiz, 2019ko azaroaren 17an hil zen, eta esan izan diet neba-arrebei: "Eskerrak garai hartan hil zen!". 91 urte zituen. Koronabirusak eragindako egoera bizi behar izan balu, ospitaleetako larritasun hori... Ikaragarria izango zatekeen egoera hura bakarrik eraman behar izatea. Gogorra, berarentzat, eta guretzat, senideontzat».



# Anaia bi

Idoia Garzes
IDAZLEA

Behinola baserri batean jaio ziren anaia bi. Elkarri eskua emanda jaio ere, banatu nahiko ez balute bezala. Bikiak ziren. Berdin-berdinak. Horregatik, erditzean sorgin-lanak egin zituen amonak, hari mutur bat hartuta begiztaz lotu zuen anaietako baten eskuin oineko behatz potzoloa, esanaz:

–Zu zara Tomax, etxe honetako premua. Eta zu, berriz, Xamot, etxe honetako kadeta.

Handitzean Tomaxek baserrian gelditu eta Xamotek baserritik alde egin beharko zuen. Lege zaharra baitzen gurean, etxea eta haren lurrak ezin banatuzkoak zirela.

Eta banaezinak ziren baita ere Tomax eta Xamot. Xamot eta Tomax. Eta igual-igualak. Ispiluak berak ere ez zituen bereizten.

Horregatik, jaiotzean Tomaxi behatz potzoloan ipinitako begizta behin-behineko aterabidea baino ez zelako, anaia bakoitzak lepotik behera zeraman zilarrezko katea dominatxo batekin, norberaren izenarekin. Amonak bazekien, baina, gaur-ni-zu-naiz-eta-zu-ni-zara ibiltzen zirela bikiak, zilarrezko kutunak elkarri trukatzen. Eta horrela ezinezkoa zen, nor zen zein eta zein zen nor jakitea.

Hamar bat urte izango zituzten, udaberria zen batean, sagarrondoak loratzen eta sagastiak zuriz jantzita baitzeuden, eta lurra txikori belarrez josia, xuri-hori berdean.

–Inoiz baino indartsuago egingo diagu putz –esan zuten lore bana eskuetan hartuta.

Eta ufa egin zuten eta lore bitxi haien luma antzekoak airean atera ziren, eta une berean altxatu zen haize-zirimolak eraman zituen oraindik gorago. Bi anaiak korrika atera ziren lumatxen atzetik, iji eta aja. Hura baitzuten jolasa: elur-luma haiei jarraitzea. Eta haizea gelditu zenean, pausatu ziren errekaren erdian eta eraman zituen urak.

–Amona, nora doa erreka?

–Itsasora.

–Zer da itsasoa?

–Munduan ez dago hitzik hura zer den adieraz dezakeenik –esan zien amonak, norberaren begiekin ikusi behar zela. Hain da-eta... ikusgarria.

–Eta noiz ikusiko dugu?

–Aurki, sagardo-upelak hartuta kostaldera joatean.

Eta kostata, baina iritsi zen eguna, eta... Haraaaa baino ezin izan zuten esan bikiek itsasoa ikustean.

Eta urteekin ere iritsi zen eguna Tomaxek gelditu eta Xamotek baserritik alde egin behar izan zuena. Besarkatu ziren eta betiko agur esan elkarri. Beraiek baino ez zekiten, ordea, ez zela horrela. Jarraituko zutela, txikitan bezala, gaur-ni-zu-naiz-eta-zu-ni-zarara jostatzen. Eta, Xamotek, partitu eta urtera, zazpi itsasoak zeharkatuta baserrira bueltatu zenean, esan zion anaiari:

–Hire txanda –eta trukatu zituzten lepokoak.

Eta ur-zabaldi hura aurrean izan zuenean, itsas haizearen ukitua aurpegian, kresalaren usaina sudurzuloetan... zirrara batek hartu zuen Tomax: jada hori bizi izandakoa zela.

Idi-parea hartuta alorra goldatzen zuenean atzean utzitako ildoa itsasontziak sortutako ubera bezalakoa zelako. Galsoro berdean haizeak altxatutako uhinak olatuak zirelako, eta haizerik ez zebilenean, berriz, soroa laño zegoelako, itsaso barea bezala. Garia larrainean jotzen zutenean, lastoa eta alea bereizteko, eta narra gainean mandoari bere kasa joaten uzten zionean, jitoan bezala zihoalako uraren eta haizearen nahieran.

Bi anaien bizipenak bereizezinak zirelako.

Urteak egin zituzten bikiek, lepokoak elkarri trukatzen, baina batean gertatu zen itsasoan zebilen anaia ez zela bueltatu. Ez galdetu zein zen, haiek ere ez baitzekiten.

Kezkatuta, baserrian gelditu zen anaia kostaldera jaitsi zen berri bila, gurdian sagardo-upelak hartuta. Eta haiek salduta bueltatu zen baserrira berririk gabe, baina bisigu bat afaltzeko erosita. Eta ezkatak kendu eta zakatzetatik hartuta erraiak kentzeko aiztoaz zabaldu zuenean, negar-malko bat irristatu zen haren masailetik behera. Arrainaren tripetan diz-diz egiten ari zen bere kolkoan zeraman dominatxoaren bikia.

Anaiak lepoan eramandako kutuna garbitu eta ipini zuen berak zeramanaren ondoan. Baserriko atarira irten eta txikori belarrak ikusi zituen ñir-ñirka belardian eta zintzilik zeramatzan dominatxoak hasi ziren din-din saltoka bere bihotz ondoan. ■

# Ariketak111

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

**I. Berridatzi edo moldatu esaldi hauek 27. eta 28. orrietako artikuluari jarraituz.**

1. Joseba Ezkurdia pilotaria eta Julio Soto bertsolaria lehengusuak dira.

_____

2. Koronabirusak hamaika lagun hil du Euskal Herrian.

_____

3. Ez naiz batere ongi moldatzen futbolean; hobe dut beste kirol batean hastea.

_____

4. Ekaingo haitzuloa, ematen ez badu ere, Debako udalerrian dago.

_____

5. Epaileak txartel gorria atera dio, nola ez. Ondo merezita dauka, zer arraio gero!

_____

6. Gorbeiako tontorra urruti dago hemendik oinez abiatzeko.

_____

7. Lapurreta egin dute bart gure dendan, eta guk bizilaguna izan dela susmatzen dugu.

_____

8. Barka atrebentzia... zuk non hartu zenuen andregaia?

_____

9. Kukuak oker jo badizu, ez guri errua bota, gero! Aditu?

_____

10. Festa honetan, ez dago mutilekin maite-jolasetan hasterik: harrapatuta daude guztiak.

_____

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Ariketak 111

## 2. Erdarakada eta kalkoak

**Esaldi hauetan lodiz markatu ditugu zenbait erdarakada edo kalko. Emango al dituzu euskara jatorragoan?** [Informazio gehiago Kalkoen Behatokian (https://www.ehu.eus/ehg/kalkoak/)]

1. Miren oso nekatuta **aurkitzen da.**

2. Ea Bizkaian **aurkitzen da.**

3. **Ikasleria** ez dago konforme **irakaslegoak** jarritako arauekin.

4. Ezkurdiak **tanto berri bat** egin du.

5. Miren txapeldun **suertatu da** esku pilota txapelketan.

6. Biharko **denbora** txarra iragarri dute albistegian.

7. Institutuan beste bilera bat **burutuko** dute aurrekoan etorri ez ziren gurasoentzako.

8. Kiroldegiko araudiak aldaketak **jasan** ditu azken urtean.

9. Zure semea **aukeratua izan da** Euskal Selekzioarekin partida jokatzera joateko.

10. **Suposa dezagun** behingoagatik arrazoi duzula. Eta, orain, nola konpondu behar dugu?

## 3. *Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk...*

Atzizkidun formak (*nortzuk, zertzuk, zeintzuk*) literatura tradizio jakin bati lotuta daudela kontuan harturik, Euskaltzaindiak erabaki du *nor, zer* eta *zein* formei lehentasuna ematea. Ez ditu, ordea, atzizki pluralgileak dituzten formak inola ere gaitzesten. Orokorki duten izaera markatua aitortzen zaie soil-soilik, eta modu horretan –forma markatu gisa esan nahi da– aurkezten, bai eta onesten ere.

Edonola ere, forma hauen deklinabideko paradigmak hauek dira: *nortzuk, zertzuk, zeintzuk* (abs), *nortzuek, zeintzuek, zertzuek* (erg), *nortzuei, zertzuei, zeintzuei* (dat), e.a.

[Euskaltzaindiaren 11. araua (**https://www.euskaltzaindia.eus/**)]

**Euskaltzaindiaren 11. arauan esaten dena kontuan hartuta, markatu esaldi hauetan zein diren egokiak, okerrak eta hobetsitako formak:**

| OKERRA | EGOKIA | HOBETSIA | |
|---|---|---|---|
| | | | Nor etorri da? |
| | | | Esan nortzuk etorri diren. |
| | | | Nortzuk egin dute hori? |
| | | | Nork egin du hori? |
| | | | Nortzuk geratuko dira bazkaltzen? |
| | | | Esan nor etorri den. |
| | | | Zeintzuk dira gaur ekarri dituzun liburuak? |
| | | | Zeintzu dira korrika egiteko zapatila aproposenak? |
| | | | Zein dira bitartekaritzaren eta elkarlan-zuzenbidearen arteko desberdintasun nagusiak? |
| | | | Zeintzu dira pertsonen alderik onenak? |
| | | | Zein dira etxeko giltzak? |
| | | | Zertzu ekarri behar dira azterketa egin ahal izateko? |
| | | | Zer ekarri behar da azterketa egin ahal izateko? |

# Soluzioak111

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## I.

1. Joseba Ezkurdia pilotaria eta Julio Soto bertsolaria lehengusu **egiten dira**.
2. Koronabirusak hamaika heriotza **egin du** Euskal Herrian.
3. Futbola **ez da niretzat egiten** dena; hobe dut beste kirol batean hastea.
4. Ekaingo haitzuloa, ematen ez badu ere, Debako udalerrikoa **egiten da**.
5. Epaileak txartel gorria atera dio, nola ez. Ondo **egin zaio**, zer arraio gero!
6. Gorbeiako tontorra urruti **egiten da** hemendik oinez abiatzeko.
7. Lapurreta egin dute bart gure dendan, eta guk bizilagunaren susmoa/juzgua **egiten dugu**.
8. Barka atrebentzia... zuk non **egin zenuen** andregaia?
9. Kukuak oker jo badizu, **ez** gure **aitzakia egin**, gero! Aditu?
10. Festa honetan, **ez dago** mutiletan **egiterik**: harrapatuta daude guztiak.

## 2.

1. Miren oso nekatuta **dago**.
2. Ea Bizkaian **dago**.
3. **Ikasleak** ez **daude** konforme **irakasleek** jarritako arauekin.
4. Ezkurdiak **beste tanto bat** egin du.
5. Miren txapeldun **izan da** esku pilota txapelketan.
6. Biharko **eguraldi** txarra iragarri dute albistegian.
7. Institutuan beste bilera bat **egingo** dute aurrekoan etorri ez ziren gurasoentzako.
8. Kiroldegiko **araudian** aldaketak **egin dituzte** azken urtean.
9. Zure semea **aukeratu dute** Euskal Selekzioarekin partida jokatzera joateko.
10. **Demagun** behingoagatik arrazoi duzula. Eta, orain, nola konpondu behar dugu?

## 3.

| OKERRA | EGOKIA | HOBETSIA | |
|---|---|---|---|
| | X | X | Nor etorri da? |
| | X | | Esan nortzuk etorri diren. |
| X | | | Nortzuk egin dute hori? |
| | X | X | Nork egin du hori? |
| | X | | Nortzuk geratuko dira bazkaltzen? |
| | X | X | Esan nor etorri den. |
| | X | | Zeintzuk dira gaur ekarri dituzun liburuak? |
| X | | | Zeintzu dira korrika egiteko zapatila aproposenak? |
| | X | X | *Zein dira* bitartekaritzaren eta elkarlan-zuzenbidearen arteko desberdintasun nagusiak? |
| X | | | Zeintzu dira pertsonen alderik onenak? |
| | X | X | Zein dira etxeko giltzak? |
| X | | | Zertzu ekarri behar dira azterketa egin ahal izateko? |
| | X | X | Zer ekarri behar da azterketa egin ahal izateko? |

# Haurrak, smartphoneak, sare sozialak eta lineako jolasak

Julen Linazasoro
Heziketa Digitala
www.macsonrisas.es

Sare sozialek, erabilpen baldintzetan, oso argi jartzen dute erabiltzeko izan behar dugun adina. Sare sozial permisiboek 13 urtetan jartzen dute langa. Hala ere, urtero gero eta haur gazteagoak murgiltzen dira sare sozialetan.

Iaz LH 6ko ikasle batzuek Instagram, TikTok eta WhatsApp bezalako sare sozialak erabiltzen zituzten. Aurten, nabaritu dugu LH 4 eta LH 5ekoek iaz 6. mailakoek baino gehiago erabiltzen dituztela, eta kontrol gutxiagorekin. Sare sozialen erabilera erabat erlazionatuta dago smartphonearekin. Haurrak, smartphonea eskuratzen dutenean, sare sozialak erabiltzen hasten dira bai ala bai, eta jada LH 4ko haur askok daukate smartphonea.

Lineako jolas asko sare sozialen antzekoak dira, jende gehiagorekin jolas gaitezke, baina ez dago jakiterik norekin gauden, baldin eta jolaskideak kalean inoiz ikusi ez baditugu. Askok profil faltsuak sortzen dituzte, eta horretarako haurren argazki eta izenak erabiltzen dituzte, gero haurrengana hurbildu eta saiakera desberdinak egiteko: haien argazkiak eskatzeko, kalean beraiekin gelditzeko, hurreratze sexualak egiteko, eta abar. Lineako jolasetan ere agertzen da gomendatutako gutxieneko adina, eta kontuan hartu beharko genuke haurrei jolasten utzi baino lehen.

Duela gutxi, Gasteizeko 5. mailako haur batek gizon bat ikusi zuen parkean haurrei galdezka ea Roblox jolasean ibiltzen ziren, eta haien erabiltzaile-izena eskatzen. Haurrak harrituta esan zidan han zeuden hiruzpalau haurrek haien erabiltzaile izena esan ziotela. Halako jokabideak oso arriskutsuak dira; izan ere, norbaitek beste pertsona baten erabiltzaile-izena ezagutzen badu, lineako jolasean bilatu eta harekin hitz egiten has baitaiteke.

Robloxen ere (+12) guraso-kontrolak daude, erabiltzaileekin harremanetan nor jar daitekeen zehazteko eta txat publikoetan elkarrizketak iragazteko. Adin guztietako jendea ibiltzen da jolasean, eta mota guztietako elkarrizketak izaten dira.

Lehen hezkuntzako 5. mailako haurrek behin eta berriz esaten digute lineako jokoetan etengabe jasotzen dituztela irainak. Haur batzuk GTA bezalako jokoetan (+18) ibiltzen dira, non gaizkileak diren eta gaizkileen misioak egin behar dituzten. Lehengoan, deigarria egin zitzaidan 5. mailako gela bateko haurrek zein naturaltasun handiz hitz egiten duten jazarpenaz. «Ni asko iraintzen naute jokatzen dudanean, baina asko, eta saiatzen naiz garrantzirik ez ematen, baina hainbeste irainek min egiten dute», esan zuen batek. «Zu eta guztiok iraintzen gaituzte, denok jasaten dugu», erantzuten zion beste batek.

LH 5eko haur batzuk saiatzen dira frogatzen Fortnite bezalako jolasak (+12) ez direla bortitzak, nahiz eta jolasaren helburua mundu guztia hiltzea eta bakarrik geratzea den. Gizarte osoak, hau-

rrek barne, oso integratuta daukagu indarkeria, eta gero eta gutxiago eragiten digu. Neska askok esaten dute ez direla jolasten lineako jokoetan, eta ez dituztela erabiltzen sare sozialak, baina jolas eta plataforma zehatzei buruz galdetzen diegunean nabari da ia denek erabiltzen dituztela sare sozialak, hala nola Youtube (+14), TikTok (+13) Instagram (+14) edo Roblox bezalakoak. Robloxek ez du gutxieneko adina zehazten baina Google Play edo App Store bezalako dendek adina zehazten dute, bakoitzak bere irizpideen arabera, nahiz eta askotan adin horiek desberdinak izan. Common Sense Media bezalako adingabeen defentsarako plataformek 12 urtetan jartzen dute Roblox erabiltzeko gutxieneko adina, sare sozial baten modukoa baita.

TikTok 13 urtetik gorakoentzako sare soziala da. Bertan, koreografiak sortzeko erabiltzen dituzten abesti askok 18 urtetik gorakoentzako letra esplizituak dituzte. Dantza asko erabat sexualizatuak daude, eta erabiltzaileek beren pribatutasuna etengabe urratzen duten bideoak argitaratzen dituzte.

Oso bortitza egiten zait Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailetako neskak, zertan ari diren konturatu gabe, mugimendu sexualizatuekin dantzan ikustea. 5. eta 6. mailako ikasleek kontatzen digute adineko gizon ezezagunek «Duo»ak egiten dituztela haiekin, batzuek kamisetarik gabe. Horretaz gain, TikToken erronka arriskutsu asko dago; baita hizkera sexuala eta desegokia, erronka sexualizatuak, zentzu bikoitzeko elkarrizketak ere, adibidez.

Instagramen (+14) zuzeneko emisioak egiten dituzten neska askok, berdin dio adinak, esaten digute mutilen eta gizonen irudi eta bideo sexualak jasotzen dituztela.

Adingabe askoren familiek beren semealabek miresten dituzten youtuberren bideoak ikusiko balituzte, ziur nago eskandalizatu egingo liratekeela. Youtube 14 urtetik gorakoentzako plataforma da. Youtubeko zenbait kanalek haurrentzako edukiak sortzen dituzte, baina beste askok ez. Auronplay, Wismichu edo El Rubius bezalako youtuber ospetsuek, oso jatorrak izan arren, esaten dute beren edukiak ez direla haurrentzako. Izan ere, jolasen inguruko bideoak ez ezik, helduentzako gaiak ere lantzen dituzte helduentzako hizkuntzan. 14 urte baino gutxiagoko haurrentzako Youtube Kids aplikazioa dago.

Ertzaintzaren arabera, 2019tik 2020ra, sare sozialetan eta lineako jolasetan %30 handitu da delituen biktima diren adingabekoen kopurua. Orain dela bi urte, sare sozialetan gertatzen ziren delituen biktimen adina 14-15 urte artean zegoen; aurten 10 urtera jaitsi da. Udaran, Ertzaintzak kasu bat izan zuen, non biktima 6 urteko neskatxa bat izan zen, txateatzeko aplikazio bat erabiltzen zebilena.

Hau guztia nolabait gelditu beharra dago. Jakin behar dugu haurrak lineako munduan zertan jolasten diren, zein sare sozial erabiltzen dituzten, zer arrisku dituzten, nork duen haiekin harremanetan jartzeko aukera, eta abar. Joko eta app guztietan gomendatzen dute erabili ahal izateko gutxieneko adina, eta ez naiz nekatuko errepikatzen adin horiek errespetatu egin behar direla.

Hainbat gailu eta zerbitzutan integratuta dauden guraso-kontrolak ere erabil ditzakegu: smartphoneak, ordenagailuak, Internet duten telebistak, bideo-kontsolak, streaming bidezko plataformak… guztiek dituzte guraso kontrolak. Eta horiek nola erabili behar ditugun ikasteko, Youtuben bila ditzakegu bideotutorialak.

Guraso-kontrol gehienek Interneten ikus daitezkeen edukiak mugatzen dituzte (orain, telebista eta bideokontsoletan ere Internet ikus daiteke), denbora mugak jartzen dituzte, eta erabil daitezkeen aplikazio eta jolasak kontrolatzen dituzte. Baina nahiz eta guraso-kontrolak jarri, ezin da kontrolatu sare sozialetan zuzeneko mezuen bidez bidaltzen dutena (WhatsApp, Instagram, TikTok…), eta haur eta gazte askok modu horretan pornografia ikusten dute.

Pantailen aurrean ematen duten denbora ere mugatzen hasi behar da. Espainiako Pediatria Elkartearen arabera, haur eta gazteek egunean gehienez ere bi orduz egon beharko lukete pantailen aurrean. Gehienez eta guztira, hau da, pantailan egiten den guztia kontuan hartuta: etxeko lanak ordenagailuan egiten, Youtube ikusten, telebista ikusten, sare sozialetan, jolasean, eta abar. Baina horrek ez du esan nahi egunero bi ordu egin behar dituztenik.

Gogoan izan behar dugu smartphoneekin batera sare sozialak ere datozela, nahi ala ez, eta smartphoneak izateko adina 14 eta 16 urte bitartekoa dela, adingabearen heldutasunaren arabera. Presio sozialaren ondorioz, lehen hezkuntzako 6., 5. edo 4. mailako haur askok smartphoneak dituzte, eta horren ondorioz, ume horiek guztiak etengabeko arriskuan daude. Ondo legoke gela bakoitzeko lehen hezkuntzako familia guztiak ados jartzea, lehen hezkuntzan inork smartphonerik izan ez dezan eta sare sozialak inork erabil ez ditzan. Gutxienez, DBHra arte itxarotea komeni da. Haurrek mugikorra behar badute, teklak dituzten horietako bat erabili dezakete, Internet eta sare sozialik gabekoa.

Haurrekin, sare sozialekin eta lineako jokoekin gauza oso larriak gertatzen ari direla konturatzen garenean, askok eskuak burura eramaten dituzte eta nola gertatu den galdetzen diote beren buruari.

Mesedez eta arren, zera eskatzen dizuet, zuen seme-alaben hobe beharrez: smartphoneak bigarren hezkuntzatik aurrera, lehen hezkuntzan sare sozialik ez, eta errespetatu zerbitzu, app, sare sozial edo lineako jokoek gomendatzen duten gutxieneko adina. ■

# Abortua: Legez arautu, baina gizartea hezi

Oihana Cabello
Kazetaria



«Emakume guztiek beren gorputzarekiko erabakitzeko eskubidea izan dezaten», sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko lege organikoa[1] aldatuko duela iragarri du Irene Montero Berdintasun ministroak. Hala, iragarri du 2010eko legeari 2015ean egindako erreforma baliogabetuko duela, eta, ondorioz, 16 eta 18 urte bitarteko gazteek eskubidea izango dutela haurdunaldia guraso edo tutoreen baimenik gabe eteteko.

Batzuek desegokitzat hartu dute gurasoen esku-hartzea jada derrigorrezkoa ez izatea. Provida Bilbao elkarteak uste du nerabeek ez luketela erabakitzeko eskubiderik izan behar, abortua bera ere azken aukera legez ikusten baitute. Kontrako iritzia du Bizkaiko Emakume Asanbladak, zeinak aldarrikatzen baitu emakume orok bere gorputzaren eta sexualitatearen gaineko erabakiak libre hartzeko eskubidea duela.

Javier Urra psikologoarentzat, aldiz, abortua hutsegite bat da, eta gazteak hezi behar dira hori gertatu ez dadin.

1. 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa.





**Javier Urra**
Psikologian eta Osasun Zientzietan doktorea

## *«Erabakia norberaren irizpidearen aurka hartzea ez litzateke batere egokia izango»*

**Zer iruditzen zaizu 16 eta 17 urteko neskei gurasoen baimenik gabe abortatzeko eskubidea ematea? Zergatik?**
Ez dakit haien ardura izan behar duen. Ados nago nerabeek heldutasuna izan beharko luketela, baina zaila da gurasoen baimenik behar duten erabakitzea. Izan ere, adin txikikoaren ardura gurasoek edo tutoreek dute, harik eta 18 urte bete arte. Horregatik, 18 urtetik beherakoek ez dute boto eskubiderik, ezta auto bat erosteko edo gidatzeko baimenik ere. Gainera, gurasoek dute seme-alaben ekintzen ondoriozko erantzukizun soziala.

Horregatik, egoki iruditzen zait haurdun geratzen diren gazteek gurasoak informatu behar izatea. Uste dut gurasoen ardura dela, ahalmena ez, baina ardura bai.

Madrilen adin txikikoen defendatzaile nintzenean, kontrako kasuak ere izan genituen. Haurdun geratu zen neska batek umea izan nahi zuen, eta gurasoek ez zuten nahi. Gurasoekin hitz egin genuen, gaia zaila baitzen. Amagaia nerabea zen, eta bitarteko ekonomikorik eta autonomiarik ez zuenez, beharrezkoa zen gurasoen babesa lortzea; eta hala izan zen azkenean.

Beraz, esango nuke legea ondo zegoela gurasoak informatu beharra zegoenean. Baina informatu besterik ez, erabakitzeko eskumenik eman gabe. Erabakiak amarena izan behar du, baina abortatzea gogorra da, eta gurasoek beren ardurak hartu behar dituzte.

**Gaztetan abortatzeak zein ondorio ekar ditzake?**
Emakumea nolakoa den, familia harremanak, ingurua... Faktore asko hartu behar dira kontuan. Hala ere, sufrimendua dakar kasu guztietan, inkognita bat. Batzuetan zentzuak diotsu horrela izan behar duela, baina arrazoia eta emozioak askotan ez datoz bat. Ume bat emakume bihurtzea biologia hutsa da, baina horrek ez du esan nahi ama izateko gai denik. 15 urteko ume batek ume izaten jarraituko du, eta ama bada, bere gurasoen laguntza beharko du, eta mundura jaiotzen den umeak aitona-amonen laguntza beharko du.

Abortuak, kasurik onenean, frustrazio biologikoa ekar dezake, eta ulergarria izan daiteke haurdunaldia etetea, baina arrasto emozionala utziko du. Horregatik, uste dut garrantzitsua dela abortuak saihestea.


**Eta nola eragin dezake gurasoek erabakitzeak nerabea ama izango dela?**
Kasu horretan, zuhur jokatuko nuke. Erabakia norberaren irizpidearen aurka hartzea ez litzateke batere egokia izango. Aukerak eta irtenbideak taldean aztertu beharko lirateke, ama izan nahi zuen nerabearen kasuan bezala. Taldean erabaki genuen aitona-amonaren laguntza izango zuela. Aholkularitza behar da, autonomia erkidegoetan horretarako aukera ematen da. Izan ere, orain arte ere izan dira ama gazteak, eta, kasu askotan, haien jokabidea ez da arduratsua izan. Bi bizitzak hartu behar dira kontuan: umearena eta amarena. Familiaren laguntza handia behar izaten dute.

**Abortua eta sexu hezkuntza tabua al dira oraindik?**
Hezkuntza zaindu egin behar da, beti, belaunaldiz belaunaldi. Ez du balio momentuko kanpainak egitea; ez da nahikoa. Intimitatea, duintasuna eta ohorea aipatuko nituzke. Zaharkitutako gaiak direla ematen du, baina beharrezkoak dira, ezinbestekoak. Nik gazteei maitasunari buruz hitz egingo nieke: maitasuna eta nahi izatea zeharo desberdinak dira. Bizitza ez da sareetan erakusten dena: askotan pornografia hutsa, azalpenik gabekoa, taldekako bortxaketak... Horri guzti horri buruz hitz

egin behar da; bestela, dena sexu hutsa eta gordina bilakatzen da. Sexualitatea ondo dago, baina oinarrizko kontzeptuei erreparatu behar zaie: norekin, nola, zergatik, alkohola kontsumitu gabe izatea... Hori dena landu beharra dago, eta aurrea hartu nahigabeko haurdunaldiei, umeak izatean hori arazo bilakatu baitaiteke. Arazo handia daukagu haurdun geratzen diren gazteekin. Izan ere, batetik, egoera fisiologikoa zaila da, eta bestetik, arazo etikoa eta morala dauzkagu. Agian, amarentzat ez da trauma bat izango, baina zauri emozionala utziko dio.

**Hezkuntza sistemak hobeto hezi beharko luke?**

Gaia tabua da baita helduentzako ere. Gurasoei kosta egiten zaie seme-alabekin gai horiei buruz argi hitz egitea, baita, guraso bezala, beraien sexualitateari buruz ere. Baina gaiari heldu behar zaio, eta errespetua zer den irakatsi. ●



Bizkaiko Emakume Asanblada

## Bizkaiko Emakume Asanblada

### *«Abortua berme juridiko eta osasun berme guztiekin eta konfidentzialtasunez egiteko eskubidea bermatu behar da»*

**Zer iruditzen zaizue 16 eta 17 urteko neskei gurasoen baimenik gabe abortatzeko eskubidea ematea?**

Sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko martxoaren lege organikoan jada bazegoen proposamen hori. Haurdunaldia borondatez eteteko aukera ematen zien 16 eta 17 urteko adingabeei, eta adin nagusikoekin parekatzen ziren, Kode Zibilaren arabera. Araudi hori 2010etik 2015era egon zen indarrean. Bitartean, Gallardonek 2/2010 Legearen kontrarreforma-proposamena aurkeztu zuen, eta mugimendu feministaren protesta masiboari esker, atzera bota zuten.

Alderdi Popularra ez zegoen ados legeproiektua erretiratzearekin, eta irailaren 21eko 11/2015 Legea onartu zuen. Rajoyren Gobernuaren erreforma atzerapausoa izan zen emakume guztien erabakitzeko eskubideari dagokionez, eta egoera ulertezinak ekarri ditu. 16 edo 17 urteko neska batek bere legezko ordezkarien baimena behar du haurdunaldia borondatez eteteko, baina adingabe batek, bere adina gorabehera, ez du inolako baimenik behar haurdunaldiarekin aurrera jarraitzeko.

Emakume batek adin-nagusitasun zibila behar du (18 urte) lagundutako giza ugalketako tekniketan parte hartzeko, baina ez du adin-nagusitasunik behar ugalketa biologikorako, eta hori guztia adingabeen bizitzarako eta osasunerako onurarik handiena kontuan hartuta. Ziurtzat jotzen da haurdunaldi bat etetea berebiziko garrantzia duen egoera dela, eta etorkizunean eragin handia izango duela adingabearen bizitzan, eta, horregatik, haren borondate-adierazpenarekin batera, haren legezko ordezkariaren, aitaren, amaren edo guraso-ahala duen pertsonaren berariazko adostasuna behar dela. Era berean, ziurtzat jotzen da nahi gabeko haurdunaldiarekin aurrera jarraitzea ez dela funtsezko egoera adingabearen bizitzan, eta ez duela etorkizunean ondoriorik izango, beraz, nahikoa izango litzateke adingabearen borondatezko adierazpena, inolako baimen ordezkaturik behar izan gabe.

Uste dugu zentzugabekeria hori aldatzea funtsezkoa dela, bai eta legearen beste alderdi batzuk aldatzea ere; izan ere, mugimendu feministaren etengabeko aldarrikapena da abortatzeko eskubidearen eta gure gorputzei buruz erabakitzeko eskubidearen aldeko borroka.

**Zein ondorio ekar ditzake legea aldatzeak?**

Ordeztutako baimenak kentzeak ekarriko luke, ondorio nagusi gisa, erabakitzeko eskubidea emakume guztientzat zabaltzea. Pazientearen autonomiari buruzko legearen arabera, 16 edo 17 urteko emakumeek ebakuntza kirurgiko batek duen irismena ezagutzeko gaitasun intelektual eta emozionala badute, nahi ez duten haurdunaldia borondatez etetea erabakitzeko ere gai izan beharko lukete. Gure ustez, adina ez da parametro ona emakume baten heldutasuna zehazteko. Planteatzen dugu zer heldutasun eta zer ezagutza behar diren ama izateko? Eta



ama izateko ezagutza gehiago eta heldutasun gehiago behar diren?

Ondorio negatiboak izan ditzake egungo legea hobetzeko erreformarik ez egiteak eta praktika politikoan oso ezarrita dagoen eragin oportunista baino ez izateak.

**Zer proposatuko zenukete?**

Alde batetik, abortatzea erabakitzen duen emakumeari, duen adina duela, abortatzeko eskubidea bermatzea konfidentzialtasunez eta berme juridiko eta osasun berme guztiekin. Bestetik, umeek txikitatik sexu eta ugalketaren gaineko heziketa sendoa jasotzea ikuspegi feministatik: emakumeok argi utzi behar dugu geuk erabakitzen dugula, eta ez beste inork, zer egin nahi dugun gure gorputzarekin, bai sexu harremanak ditugunean zein baldintzatan eduki nahi ditugun, baita abortatzeko erabakia hartu behar dugunean ere.

Gainera, aldi berean, jendartean baliabideak eskaini beharko lirateke nahi gabeko haurdunaldien inguruan sakon hausnartzeko.

**Nola lortu gizartean hori berori bermatzea?**

Oso zaila da emakumearen rolen inguruko aurreiritziak, amatasuna eta sexu askatasunaren ingurukoak desmuntatzea. Horregatik, ezinbestekoa da horien kontra modu estrategikoan jokatzea, ikuspegi feministatik. Bizitzako esparru guztietan lortu behar dugu aurreiritzi horiek eraldatzea, jendartean erantzun enpatikoagoak sustatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da emakumeoi dagokigun tokia aitortzea.

**Nahigabeko haurdunaldien gaia polemikoa da.**

Gure ustez, gai polemikoa da, eta, aldi berean, agerian uzten du gizarte honetan emakumearen egiazko egoera. Ez da bidezkoa haurdunaldia etetea salbuespeneko osasun esku hartze bezala hartzea. Inork ez luke eztabaida hau ulertuko bestelako esku hartze kirurgiko bat balitz. Arrazoiak argi dauzkagu: amatasuna eta emakumeok gure gorputzen gaineko erabakiak gure kabuz eta inoren onespenaren beharrik gabe egiteko eskubidea mahai gainean jartzen direnean, agerian geratzen da botere publikoen benetako koloreak zeintzuk diren. Horregatik, uste dugu abortuaren legearen inguruko hausnarketa sustatzeko aukera hau baliagarria izan daitekeela. Nahigabeko haurdunaldien errealitatea gordina, zaila eta latza da sarritan. Hezkuntza politiken porrota ere bada. Ezinbestekoa da sexu hezkuntza egokia, eta herritar guztiei helarazi behar zaie, gizarteak gaiari buruz sakon eta kontziente hausnartu dezan, gaiak merezi baitu. Jendeari argi helarazi behar zaio mezua: emakumeen sexu eta ugalketarako askatasunarekin negoziatzerik ez dagoela, gure gorputza geurea dela, eta erabakiak hartzeko inoren baimenik ez dugula behar.

**Lege proposamenak sexu hezkuntza ere aurreikusten du. Hutsunea ikusten duzue gaur egungo sisteman?**

Mugimendu feministak hasieratik esan du gazteak sexualitatean hezteari buruz lege-proposamenak dioena. Sexualitatearekin lotutako eskaerak agenda feministaren parte izan dira. Heziketa afektibo-sexuala eskubidea eta beharrizana da, bizitza osoan bete beharrekoa, gure gorputza eta sexualitatea erabat garatu ahal izateko eta errespetuzko, bidezko eta indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzeko. Beraz, ez da inolako berritasunik lege-proposamenean. Dagoeneko aski ezaguna denez, sexu hezkuntzarekin lotutako jarduerak eskolaz kanpoko jarduera gisa egituratzen dira, eta gutxi, puntualak eta borondatezkoak dira. Ikastetxe guztietarako jarraibideak ezartzen dituen araudirik ez dagoen bitartean, egoera oso heterogeneoa izango da, eta gaia oso modu ezberdinetan landuko da. Azken batean, ikastetxe bakoitzeko irakasleen eta guraso-elkarteen inplikazioaren araberakoa da. Ekimen horiek borondatezkoak dira, eta ez sistematikoak; alde batetik, ikastetxe bakoitzaren ekimenaren mende daude, eta, bestetik, jarduerak kanpoko eragileek doan eskaintzearen mende. Horietako askok esku hartze laburrak jartzen dituzte abian, eta horietako batzuk udaletako berdintasun-arloek edo gazteria-arloek bultzatzen dituzte, noizbehinkako ekintzak eskaintzen baitituzte. Sexu heziketa eskasa dugu, eta hitzaldi, tailer eta unean uneko beste jarduera batzuen bidez bete nahi da.

Gabezia hori are kezkagarriagoa da Haur Hezkuntzan eta Batxilergoan, ia ez baitago esku hartzerik. Modu integralean landu behar da sexu hezkuntza, eta haren alderdi fisiologikoak eta afektibo-emozionalak jaso behar dira. Alegia, hezkuntza jasotzeak eskubide izan behar du; beraz, irakasgai honek derrigorrezko curriculuma eta protokoloa behar ditu, profesionalen irizpide pertsonalaren eta interes politiko edo alderdikoien mende ez dauden araudi zehatzekin. ●

ayuda a madres en apuros

PROVIDA BILBAO

## Provida Bilbao

### *«Abortua azken aukera da; egokiena litzateke bitartekoak jartzea amaren duintasuna eta jaio ez denaren bizitza babesteko»*

**Zer iruditzen zaizue 16 eta 17 urteko neskei gurasoen baimenik gabe abortatzeko eskubidea ematea? Zergatik?**
Gure ustez, erabaki honek adin txikikoa babesik gabe uzten du beste batzuek sor ditzaketen presioen aurrean. Alde batetik, gurasoen bitartekaritza garrantzitsua izan daiteke zentzuzko erabakia eta ongi hausnartutakoa hartu dela bermatzeko. Bestalde, adierazgarria da adin horretan beste eskubide zibil asko mugatuta edukitzea, baina aukera ematea gizaki baten bizitzari buruz erabakitzeko.

**Abortatzeko eskubideak emakumeen eskubide legala izan behar du. Zergatik?**
Inola ere ezin da eskubide izan. Beste kontu bat da, kasuaren arabera, ez ohiko tratamendu juridikoa behar izatea.

**Ze ondorio izan ditzake neurriak? Onuragarria izan daiteke gizartearentzat, ala kaltegarria?**
Gure ustez neurri honek ez dio onurarik ekarriko ez haurdun dagoen adin txikikoari ezta gizarteari ere. Ez da bidezkoa gizakien bizitza adin txikikoen esku uztea. Gainera, gurasoen tutoretzaren aurka doa, eta familiarteko konfiantzazko harremanak kaltetu ditzake.

**Zuen iritziz, zer beharko luke lege honek nahi gabe haurdun geratzen diren nerabeak babesteko?**
Egungo kulturak abortua lehenesten du nahi gabeko haurdunaldiak konpontzeko. Guk emakumeei eta, batez ere, nerabeei, ematen diegu arreta, eta gure esperientziak diosku horietako asko haurdunaldiarekin jarraitzeko prest, eta bizitzari aukera bat ematearen alde agertzen direla. Alabaina, presio handia jasan behar dute, eta, askotan, beharrezkoa den laguntza psikologiko, emozional eta materiala falta zaie. Horregatik, araudi berriak gabezia horiek asetu eta bitartekoak eman beharko lizkieke emakumeei, libre erabakitzeko gai izan daitezen.

**Emakume batek haurdunaldia etetea erabakitzen badu, zein ondorio izan ditzake?**
Abortua drama bat da, pertsonala eta soziala. Hutsaldu arren, bizitza bat etetea eta ama izateari uko egitea erabakitzea traumatikoa izango da beti. Kasu askotan, bizitza osorako zauria eragingo du horrek. Emakumea bera ere abortuaren biktima izan daiteke. Holakoak ikusten ditugu Provida bezala laguntzen dugunean. Gizartean abortua hutsegite kolektiboa da. Gure gizarteak baliabide material eta teknologiko ugari ditu, eta eskandalagarria da gizabanako ahulenen garbiketa sistematikoa.

**Kasuren batean justifikatu daiteke abortatzea?**
Ez dugu hain erabaki handia epaitu nahi. Gakoa da halako erabakirik hartzeko beharrik ez izatea. Hori lortu daiteke haurdun geratzen diren emakumeei beharrezko babesa emanez. Arrazoi medikoak edo materialen gabezia bezalako aitzakiak zaharrak dira, eta gainditua egon beharko lukete.

**Zein aukera izan ditzake nahi gabe haurdun geratu den emakume batek?**
Gure ustez, arrazoitutako guztia kontuan hartuta, abortatzea azken aukera da. Egokiena da bitartekoak jartzea amaren duintasuna eta oraindik jaio ez denaren bizitza babesteko.

**Abortua eta sexu hezkuntza tabua al dira oraindik? Nola hel dakioke gaiari?**
Gazteek sexualitateari buruz informazio zabala jasotzen dute. Agian, arazoa da informazio hori teknikoegia dela, eta ez duela baloreetan behar beste sakontzen. Pertsona guztien duintasunari datxezkion baloreak errespetatzea ezinbestekoa da, bai sexu harremanetan, bai oraindik jaio ez direnen bizitzari buruz erabakitzerakoan. ■

# Hizkuntza gutxituak: ezagutzaren eta erabilera sustatzearen arteko lotura*

F. Xavier Vila
Bartzelonako Unibertsitatea


Hizkuntzaren ezagutza eta erabilera aldagai desberdinak dira. Hizkuntzaren ezagutza errealitate psikologiko batutzaile samarra da, hizkuntza berriak eskura baitaitezke, lehendik ikasitako beste hizkuntza batzuen ezagutza nahitaez kaltetu gabe. Hizkuntzaren erabilera, berriz, zero batura duen aldagaia da nagusiki, hizkuntza bat erabiliz gero, ezin baita *aldi berean* beste hizkuntza bat erabili, pertsonen arteko elkarreraginean bederen; izan ere, hizkuntza batean hitz bat sortzen den bitartean ezin da beste hizkuntza batean hitz egin. Oso azkar txandaka daitezke hizkuntzak, hau da, bata bestearen segidan erabili. Nahastu ere egin daitezke, alegia, jatorrizko biak ez den hirugarren aldaera bat sor daiteke, baina ezin da bi hizkuntzatan aldi berean hitz egin, baldin eta ez badira bien arteko nahasketa ahalbidetzen duten eta elkarrengandik oso hurbil dauden hizkuntzak.

Ezagutzak eta erabilerak izaera desberdina dute, eta horrek itxurazko paradoxa batera garamatza: testuinguru sozial eleaniztunetan, askotan, gizabanakoek, hizkuntza bat baino gehiago menderatu arren, oso gutxitan erabiltzen dute edo sekula ez dute erabiltzen hizkuntza bat baino gehiago. Erraz egiazta daitekeen zerbait da, gutxienez eskala txikian: Hego Euskal Herriko (ia?) euskaldun guztiek gaztelaniaz ondo dakite, baina eguneroko elkarrizketa asko euskara hutsean egiten dituzte; hau da, dakiten beste hizkuntza erabili gabe. Beste era batera esanda, testuinguru sozial eleaniztun batean, ezagutzak ez du hizkuntzaren erabilera baldintzatzen, hizkuntza erabiltzeko aukera baino ez du sortzen.

2018ko EULP inkestako datuen arabera, Kataluniako biztanleriaren % 55,1ek adierazi du katalana 9-10 mailan menderatzen duela (0tik 10era bitarteko autoebaluazio-eskalan), % 14,3k 7-8ko maila duela, % 8,9k 5-6ko maila eta % 21,6k 5 baino gutxiagoko maila duela. Erabilerari dagokionez (ikusi 1. irudia ), beste mailaketa bat gertatzen da: ezagutza txikiagoa duten pertsonek ez dute katalanez hitz egiten beren eguneroko bizitzan, baina ezagutza-eskalan gora egin ahala, erabilera nabarmen handitzen da, sakabanatze-ibiltartearekin batera. Katalana jakiteak ez du esan nahi nahitaez erabili behar denik (asko).


Faktoreen azterketa batek erakusten du ezen, elebakarren kolektiboarentzat, ezagutza-mailak azaltzen duela, beste ezerk baino hobeto azaldu ere, katalanaren erabilera; izan ere, zertxobait dakitenek gehiago hitz egiten dute ezertxo ere ez dakitenek baino. Aldagai horien ondoren, katalanez egiteko jarrera positiboaren mende dago kolektibo horretan katalana erabiltzea, katalanez egiten duenari katalanez erantzuten saiatuz, esaterako. Hala ere, katalanaren 5. mintzamen-mailatik aurrera, banakako ezagutza-maila ez da aldagai erabakigarria. Jarrerazko aldagai batzuk dira jokabidea azaltzeko aldagai indartsuenak: adibidez, hizketaldiei

**1. irudia: 14 urtetik gorako biztanleen banaketa, katalanaren ezagutza-mailaren araberakoa (otik 10era), eta egunero katalanez egiten dutenei dagokien portzentajea**




* Artikulu hau MINECOren FFI2016-75416-P proiektuari eta AGAURren Grup d'Estudi de la Variació 2017 SGR 942 taldeari esker sortu da.

**2. irudia: 14 urtetik gorako biztanleen banaketa, hizkuntza-erabileren arabera, hainbat eremutan eta hainbat solaskiderekin. Katalunia, 2018**




ITURRIA: EULP 2018, egileak prestatua.

katalanez ekitea, katalana identifikazio-hizkuntzatzat jotzea edo etorkizunean hizkuntza horretan gehiago hitz egiteko gogoa adieraztea. Horien atzean *egiturazko* aldagaiak agertzen dira, hala nola bizi den lurraldea edo dagokion adintaldea. Bestela esanda, azterketak erakusten du hizkuntza jakitea edo ez jakitea funtsezkoa dela hizkuntza horretan egiteko, baina, behin ezagutza-maila jakin batzuk (ez nahitaez altuenak) eskuratuta, hizkuntzarekiko loturak eta hura erabiltzeko aldez aurreko jarrera onak zein testuinguruak ezagutza-maila hutsak baino hobeto azaltzen dute erabilera.

Katalunian, interakzioak ausaz gertatzen diren testuinguruetan (non, ondorioz, ez baita ziurra solaskide guztiek katalana dakitela), hizkuntza horren erabilera txikiagoa da gehienek dakiten testuinguruetan baino (ikus 2. irudia ).

Solaskideren bat elebakar gaztelaniaduna izatea errazagoa den eremuetan (etxean, lagunekin, auzokideekin, lankideekin, eta abar), katalan gutxiago egiten da katalana erabiltzeko aukera bermatuago duten testuinguruetan baino (hala nola dendetan, bankuetan, eta tokiko eta autonomia-erkidegoko administrazioetan), bigarren horietan hizkuntza-baldintzak egon badaudelako. Izan ere, tokiko administrazioek eta, batez ere, autonomia-erkidegoko administrazioek katalana dute lan-hizkuntza lehenetsia, eta katalanaren aldeko hizkuntza- eta entzumen-paisaia izateko joera dute. Hor inguruneak bultzatzen du gehien katalana erabiltzera. Banketxeen kasua antzekoa da, katalana lehenetsitako hizkuntza ez izan arren, katalanarekiko paisaia atsegina eskaintzen jarraitzen baitu. Egia esan, katalanezko lurraldeen arteko konparazio batek baieztatzen du Andorrako Administrazioa dela katalan gehien egiten duten inguruneetako bat, hor hizkuntza ofizial bakarra baita, eta, beraz, gonbidapena baino gehiago, erabiltzeko *beharra* da.

Frogatuta dago lotuta daudela katalanez egiteko aukerak eta katalanaren benetako erabileraren murrizketa. Kataluniako medikuen kolektiboa betidanik langile katalanek osatu izan dute; ondorioz, eremu horretan gaztelania baino askoz ere katalan gehiago egin izan da. Baina azken bi hamarkadetako *low cost* kontratazio-politikak eragin du katalanez hizkuntza-gaitasunik ez duten kanpoko langileen kopurua handitzea, eta, ondorioz, murriztu egin dira katalanez egiteko aukerak. Ondorioz, medikuekin katalanez bakarrik egiten zutela zioten pertsonen kopurua 400.000 pertsonatik gora murriztu zen 2003tik 2013ra bitartean.

Labur esanda: konplexua da hizkuntza gutxituaren ezagutzaren eta erabileraren arteko lotura, banakako elebitasunak ez baitu bermatzen erabiltzeko aukera. Ezinbestekoa da herritar gehienek euskara jakitea, baina ez da nahikoa hizkuntza normalizatzeko. Norberaren ezagutzatik harago, funtsezkoa da motibazioa eta hizkuntzarekiko lotura lantzea, lotura hori gabe ezagutza ahalmen hutsa baino ez da-eta izango. Bestalde, hizkuntza-praktika gizarte-jarduera elkarreragilea denez, okerra litzateke eleaniztasuna banaka arautzea, hizkuntza bat erabiltzeko eskubideak beste batzuen betebeharrak dakartzalako nahitaez. Euskara sozietate-hizkuntza gisa erabiltzen aurrera egiteko, beharrezkoa da euskara erabiltzeko aukera ematen duten eremuak zabaltzea, euskara erabiltzera bultzatzen duten inguruneak sendotzea eta, ahal den neurrian, euskara erabiltzea beharrezkoa den esparruak ezartzea. ■

# «Egin» aditzaren zenbait erabilera gogorarazten (I)

Tomas Arzubialde
IZOko kidea

Hona hemen *egin* aditzaren hainbat erabilera, denetarikoak, logika handirik gabe saski-naski batean bilduak: gehienak gero eta gutxiago entzuten direnak izatea, horixe lotura bakarra. Zuri ere, irakurle, beste hamaika bururatuko zaizu ziurrenik. Euskara ziztu bizian pobretzen ari den garai honetan, ez da gaizki etorriko haietako zenbait gogoraraztea. Adibide gehienak euskara batura ekarri ditugu. On egin!

## Lehengusu egiten dira (lehengusu, ahaide…) = Lehengusuak dira

**Berteretxeren osaba egiten da** Gartxot jaun zalduna (Etxaide, Yon; *Begia begi truk*).

**Zure lehegusu egiten da** Lukuzeko Baroia. (Etxaide, Yon; *Begia begi truk*).

**Nirekin lehengusu txiki egiten da** (Loidi, Jose Antonio; *Hamabost egun Urgainen*, 23. or.).

Ez al dakizu **zure ama eta ni lehengusu egiten garela**? (Iturzaeta, Prantxisko Mari; Olaizola, Manuel, "Uztapide"; *Lengo egunak gogoan I*, 188. or.).

Zuk diozunez, **nire amarekin lehengusu egiten zara** (Olaizola, Manuel, "Uztapide"; *Lengo egunak gogoan I*, 188. or.).

## Urruti egiten da (urruti, aparte, hurbil, gertu, hurrean…) = Urruti dago

Etxegoihenia, Miñikuren jaiotetxea alegia, Malta ibar berberean egon arren, Etxahuniatik **aparte samar egiten da** (Etxaide, Yon; *Joanak joan*, 20. or.).

Kaillatietako etxola Etxahuniatik **hurbil samar egiten zen** (Etxaide, Yon; *Joanak joan*, 52. or.).

**Herritik oso hurrean egiten da** gaur Ibarrondo basetxea (Itziar, Martin; *Larraundi'ko sendia*, 16. or.).

Pol-polen ere izan ginen. Hara herritik **urruti egiten da** (Olaizola, Manuel, "Uztapide"; *Lengo egunak gogoan II*, 140. or).

Herri honetatik gertu **egiten da** ikusi nahi genuen bazterralde ori (Olea, Inozentzio; *Bizitza izbide*, 144. or.).

## Hangoa egiten da = Hangoa da

Otsoats-borda herriz **Atharratzeko partekoa egiten zen,** baina bere lur batzuek Barkoxekoekin mugatzen zuten (Etxaide, Yon; *Joanak joan*, 69. or.).

Horretan ere, filarmonika jotzen ere, Sakabi ere hangoa da; San Nikolasetan, behintzat, **Lasturrerako egiten da** (Olaizola, Manuel, "Uztapide"; *Lengo egunak gogoan I*, 170. or.).

## Heriotza egin = Hil (bizia kendu)

Orainaldian gizartean **heriotzarik gehientsuenak egiten dituen gaitzetako bat** kolesterol omen da (Olea, Inozentzio; *Bizitza izbide*, 25. or.).

Urtean **milioi bat heriotzatik gora egiten omen ditu tabakoak** (Olea, Inozentzio; *Bizitza izbide*, 107. or.).

Gorputzeko ikara, animako lotsa / **zeren egin ditudan amalau eriotza;** / aditu ezkeroztik diruaren otsa / bidera irten eta botatzeko poltsa, / aterako niola bestela biotza (*Hamalau heriotzena* bertso saila).

Nor dabil, ibili ere, Lukuztarren taldean eskandalurik handienak jartzen eta **heriotzarik beltzenak egiten**? (Etxaide, Yon; *Begia begi truk*, 20. or.).

## Halakoren aitzakia egin = Halakori errua bota

Eta **askotan egiten degu belarri motzen aitzaki**. / Etsai txarrena geroni gera hortan ez dudarik euki! (Lazkano, Imanol; *Aho bizarrik gabe*, 208. or.).

Uztarria astuna ateratzen bada, **ez egin nire aitzakia** (Zendoia, Nikolas; *Sasi guztien gaiñetik*, 169. or.).

Ijitoek emanik ainbeste apuro / **euren aitzaki egin nuen** nik agudo (Zendoia, Nikolas; *Sasi guztien gaiñetik*, 256. or.).

Herri guztiak ikusi nahi zuen mutikoa. Amak, ordea, **medikuaren aitzakia egiten zuen**: ez zitzaizkiola bisitak komeni; hobetoxeago jartzean... (Esnal, Pello; *Malkos*).

Hilaren aztarrenik ez zen azaldu. **Lapurren aitzakia egin zuten** (Zapirain, Salbador; *Eltzaorra*, 71. or.).

—Ez, ez naiz ederki ibili, ez. Dena mozkortu naiz. Izan ere ni, Joxe, ez nago horrenbeste edatera ohituta.
—Basoa bete nik egin diat, baina edan hik egin duk, e? **Ez nire aitzakia egin!** (Lizaso, Joxe: Urbieta, Kepa; *Oroitarri*, 19. or.).

## Halakoren susmoa egin, halakoren juzgua egin = Halako izan dela susmatu

Oraintxe bertan esan diezazukegu **zeinen susmoa egin dugun** (Arzallus, Juan Mari; *Hiru arkuko zubia*, 67. or.).

**Ijitoen juzgua egin genuen**. Auzoetan behintzat ez ziren azaldu txaketak (Zendoia, Nikolas; *Sasi guztien gaiñetik*, 255. or.).

Alajainkoa! Horretaraino erori al zinen? **Ez nuen behin ere zure susmo txarrik egingo** (Zapirain, Salbador; *Azken saskigillea*, 46. or.).

**Noren susmurra egiten duk?** (Zapirain, Salbador; *Odol-kutsua*, 102. or.).

Barkatu: ez bazina etorri, **zure juzgua egingo genuen** (Zapirain, Salbador; *Eltzaorra*, 95. or.).

Orduan, herri guziak bezala, **nire juzgua egiten** duk hik ere (Zapirain, Salbador; *Lotsaren iges*, 63. or.).

**Pedroren juzgua egiten zuten**. Hau sartuz gero hasi baitziren lapurretak (Zapirain, Salbador; *Berezko iltzaillea*, 56. or.).

## Hori ez da niretzat egiten dena = Hori ez dago niretzat eginda, ez da niretzako modukoa

—Ez da zilarrezkoa, baina (...). Begiratu iezaiozu nolako atzealdeak dauzkan.
—Ez, **ez da niretzako egiten dena**; merkexeagoa behar dut (Agirre, Txomin; *Garoa*, 73. or.).

—Iturraldeko Jose ez al dun hiretzat behar?
**—Ez dun niretzako egiten dena** (Agirre, Txomin; *Garoa*, 192. or.).

Ez dinat sekula Ameriketarako gogorik sentitu. **Hori ez dun niretzat egiten dena** (Etxaide, Yon; *Joanak joan*, 101. or.).

Nik ez dut esaten Paris hau baino leku txarragoa izango denik; baina orain **guretzat egiten den tokia ez dela** hura, eta besterik ezer ere ez (Olaizola, Manuel, "Uztapide"; *Lengo egunak gogoan II*, 231. or.).

Erakustoki edo museoetan egoten da koadro ederrik, baina gu bezalako asko, neu aurretik naizela, mutu, itsu eta gor geldizten gara haien aurrean. **Artearen ezkutukiak ezagutzea eta ulertzea ez da edozeinentzat egiten den lana** (Olea, Inozentzio; *Bizitza izbide*, 155. or.).

## Andregaia egin, senargaia egin = Andregaia hartu, senargaia hartu

Erromeri ederra zan Santio Mendiko tontorrean / **hantxe egin nuen andregaia** / bai emakume alaia (Imaz, Bruno; *Erromerian*).

Nik **andregaia egin dedala** / Zubietako partian / ori esaten ari dana bere / etzebillen apartian (Izagirre, Akilino, "Zepai"; Olaizola, Manuel, "Uztapide"; *Lengo egunak gogoan I*, 284. or.).

Urte asko lehenago, Zarauzko **senargaia egin** zuela aitortzean, epelak aditu behar izan zizkion (Peña, Yoseba; *Hariak*, 11. or.).

«Amodioa itsua dun, itsua ez ezik txoroa ere bai», esaten zigun Ibiagako Matilde eta biori, **senargaia egin** genuela jakin zuenean... (Iraola, Rufino; *Maitasuna itsua da*, *Habe* aldizkaria, 306. zenbakia).

## Neskatan egin, mutiletan egin = Neskekin, mutilekin maitejolasetan ibili

Guk **neskatan egiteko** berriz jaio beharko genikek, eta hala ere, nahiko lan (Alberdi, Pedro; *Kafka Bilbon*, 50. or.).

Xabierri adarra jotzen diogu, zirikatzaile, **neskatan egiteko** moduaz arauak daudela eta (Jimenez, Edorta; *Europako mugetan barrena*, 192. or.).

Hirekin **ez zagok neskatan egiterik!** (Izagirre, Koldo; *Sua nahi, Mr. Churchil?*, 156. or.).

## Ondo egin (zaio) = Ondo merezia izan

Erre al zarete? **Ondo egin zaizue...** Egote asko zenuten atera eta hoztu arte (Atxukarro, Inazio Mari; *Irriparrezko printzak*, 184. or.).

Begira lagun hurkoaren gaitzaz poztu ote zaren, zeuregan esaten duzula: Jainkoak barka dagidala, **ondo egin zaio** (Agirre, Juan Bautista; *Eracusaldiak II*, 113. or.). ■

# OSAREAN: Osakidetza ez presentziala

## Telemedikuntzaren kudeaketa (eta 2)

Antonio de Blas
Dabi Santano




Bigarren artikulu honetan osatu dugu Osakidetzak eskaintzen dituen zerbitzu digitalen deskribapena. Aurrekoan adierazi bezala, IKT tresnen erabilera lehendik Osakidetzako zerbitzuetan oso errotuta zegoen eta koronabirusaren pandemiaren eraginez nabarmen hazi da.

### Osakidetzako aplikazioak

Osakidetzaren atari mugikorrean, honako aplikazio hauek aurkitu eta deskarga daitezke:

- **Osasun-karpetara sartzeko aplikazioa**
- **Web bidezko hitzorduak emateko aplikazioa**
- **Pazienteari mezuak bidaltzeko aplikazioa.** Osakidetzak bidaltzen dituen osasunari buruzko gomendio orokorrak jasotzeko balio du.
- **«Nire tratamendua»n sartzeko aplikazioa.** Pastilla-kaxa elektroniko bat da; bertan, pazienteak bere medikazio aktiboaren zerrenda eguneratua ikusi, eta hartualdien berri emateko alarmak programatu ditzake.
- **BBB aplikazioa.** Osasun-zentro batetik kanpo, bihotz-geldialdi bati arreta emateko laguntza ematen du. Desfibriladore hurbilena non dagoen jakinarazten du, eta Osakidetzako Larrialdiekin harremanetan jartzen da.
- **Osasun Eskola aplikazioa.** Osasun Eskolak osasunaren eta bizitza osasuntsuaren autogestioa ahalbidetzen du.
- **Kontratazio-zerrendak aplikazioa.** Osakidetzan lan egin nahi duten profesionalentzako aplikazioa da.
- **«Mangolsen bidaia».** Haurren gehiegizko pisuaren eta obesitatearen aurkako tratamendu-programa berritzailea da, mundu osoan bakarra, teknologia berriak eta pediatriako langileekin aurrez aurreko kontsulta protokolizatuak konbinatzen dituena. Osakidetzak eta Osakidetzarentzat sortu eta diseinatu du osorik, hasierako faseetatik lehen mailako arretako erizaintzako eta pediatriako kontsultetan lan egiteko modua kontuan hartuta.

Pazienteen tratamendua eta jarraipena bateratzen ditu, osasun-langileei talde horretako esku-hartzea errazten die, eta emaitza hobeak lortzea du helburu, gamifikazioaren bidez ezagutzak eskuratzeari eta banakako motibazio-kontsulta indartzeari esker.




**Haurren gainpisua eta obesitatea tratatzeko programa berria**

- Osasun-arloko langileak
- Motibazio-kontsulta protokolizatuak
- Bitarteko kontrol-kontsola
- Osabide globala
- Prestakuntza eta laguntza-materialak
- 7-14 urte bitarteko umeak
- Tutoreak
- Integrazioa

Programak lehentasunezko hiru ardatz ditu:

– **Serious Game.** Lehen mailako arretako kontsultetatik agindu daiteke, eta pazienteek zein senideek beren etxeetan erabil dezakete. Programak kalitate zientifikoa duen informazio irisgarri eta atsegina eskaintzen die, eta, gamifikazio-teknikei esker, edukia hobeto finkatzen laguntzen du.

– **Motibazio-kontsultak.** Pediatriako ekipoaren bi profil klinikoetako edozein bete ahal izango duten kontsulta protokolizatuak eta arautuak; hasieratik bertatik, ohiko praktika klinikoan gauzatu ahal izateko diseinatuak.

– **Osakidetzaren sistemekin erabat integratzea.** Pazienteek eta haien familiek maneiatuko duten Serious Game guztiz integratuta dago lehen mailako Osabide globalarekin. Horrela, osasun-langileek bilakaera monitorizatuta izango dute, eta Serious Game aplikazioarekin elkarreraginean aritu ahal izango dira estazio klinikotik bertatik.

- **Tabakismoaren tratamendu konbinaturako aplikazioa**. Osakidetzako mediku eta erizainen eskura jartzen den tresna da. Gaur egun osasun-zentroetan modu presentzialean lantzen dute, banaka edo taldeka.

  Osasun langileek kontsultan edo telefonoz emandako motibazio-aholkuak sendotzeko erabiltzen da. Pazientearen telefono mugikorrean instalatzen da, eta prozesuak dirauen sei hilabeteetan motibazioa eta laguntza eskaintzen ditu. Bertan, pazienteak ikus dezake zenbat egun daramatzan erre gabe, zenbat diru aurreztu duen eta bizitzan zenbat egun irabazi dituen. Aldi berean, laguntza mezuak jasotzen ditu, eta gomendioak eskatu ditzake une batean erretzea saihestu ezin izan badu edo antsietatea sortu bazaio.

- **COVID-19.EUS aplikazioa.** Osasun Sailak Osakidetzarekin elkarlanean garatu duen aplikazioa da. Herritarrei zuzenduta dago, eta haren helburua da **herritarren sare bat** osatzea, koronabirusari eusten laguntzeko.

  Osasun-langileen talde bat osatu da Covid-19aren eragin arina edo moderatua duten pertsonei txat baten bidez arreta eta aholkuak emateko.

- **CHATBOT.** Osasun Kontseilua bezala, herritarrei erantzuteko tresna da. Adimen artifizialean oinarritzen da, eta kanal telematikoak erabiltzen ditu, hala nola Internet edo WhatsApp.

  Lehenik eta behin, herritarrentzako triaje-algoritmo gisa pentsatu zen, halako moldez non, zuzendutako galdera batzuei erantzunez, koronabirusez kutsatuta egoteko aukeren eta jarraitu beharreko gomendioen berri ematen baitzitzaion pazienteari. Gerora, beste funtzionalitate bat gehitu zaio: herritarren zalantzei erantzutea. Osasun Kontseiluak erabiltzen duen galderen argumentario bera erabiltzen du, eta ikasten doa aplikazioa erabili ahala.

  Osakidetzaren webgunean sartzean, ikono bat agertzen da behealdean, eskuinaldean. Bertan klikatuz gero, txata hasten da.

- **OSAKI-COVID-PRO aplikazioa**. Gaixotasun berria eta nahiko ezezaguna zenez, Covid-19ak zenbait erronka planteatu zizkien Osakidetzako langileei. Erronka horiei zein protokoloen ohiko aldaketei aurre egiteko, osasun-arloko profesionalen talde bat sortu zen, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak informazio eguneratua eta laguntza zientifikoa eman ahal izateko Osakidetzako langileek planteatutako zalantzei. Hasieran kontaktua telefonoz egiten zen, eta gero hartu-eman hori aplikazio bihurtu zen.

### Interkontsulta ez presentzialak

Familia-medikuen eta ospitaleko medikuen artean interkontsulta mota hori aktibatu da, paziente bat osasun-zentrotik ospitaleko kanpo-kontsultan beste mediku batengana bideratzeko ohiko moduaren aurrean. Gaur egun, profesionalek paziente baten kasua elkarrekin kontsulta dezakete, eta kontsultaren arazoa aurrez aurrekoa ez den interkontsulta baten bidez konpondu. Horrela, pazientea ospitaleko kontsultara joatea saihesten da.

Azken urtean, 94.768 pertsonak ez dute bidaiatu behar izan beren kasua familia-medikuaren eta ospitaleko mediku baten artean aztertu dutelako. Tresna horren erabilera ere areagotu egin da Covid-19aren garaian.

## Telefono bidezko kontsultak

Biztanleek asko baloratzen duten arreta-modua dira. Lehen mailako arretan, pazienteek berek eska ditzakete telefono bidezko kontsultak osasun-zentroan, telefonoz eta Osakidetzaren webgunearen bidez. 2019an, familia-medikuek 1.552.588 kontsulta egin zituzten telefonoz, lehen mailako arretako pediatrek 191.232 eta ospitaleko medikuek 350.202. Ospitaleko arretaren kasuan, osasun-langileek telefono bidezko kontsultak erabiltzen dituzte patologia kronikoen jarraipena egiteko. 2018an, ospitale-eremuan, 300.040 kontsulta egin ziren telefonoz.

Covid-19aren pandemia garaian, kontsulta medikoek nabarmen egin dute gora, pazientearen osasunaren lehen balorazioa telefono bidezkoa izan delako. Planteatzen diren osasun-arazoen arabera, aurrez aurreko kontsulta bat egitea edo ez egitea erabakitzen da, esploratzeko, edo proba osagarriak, analitikoak eta abar egiteko. Hainbeste telefono-deiri aurre egiteko, administrazio-arloak eta deien *call center*rak indartu dira.

| TELEFONO BIDEZKO KONTSULTAK | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Familia-medikuntza | 2.052.472 | 2.215.800 | 2.304.315 | 1.647.403 | 1.552.588 |
| Pediatria | 265.023 | 286.016 | 298.018 | 207.738 | 191.232 |
| Ospitaleko arreta | 184.264 | 227.738 | 258.167 | 300.040 | 350.202 |
| Guztira | 2.501.759 | 2.729.554 | 2.860.500 | 2.155.181 | 2.094.022 |

| ERREZETA ELEKTRONIKOA | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Elektronikoki banatutako errezeta kopurua | 32.089.109 | 34.070.723 | 35.357.336 | 37.249.330 | 38.090.968 |
| Banaketa-kopurua | 6.624.547 | 7.086.550 | 7.439.563 | 7.778.962 | 7.792.032 |
| Preskribatu zaien pazienteen kopurua | 1.497.462 | 1.537.776 | 1.551.666 | 1.582.477 | 1.585.599 |
| Estatuan EAEko herritarrei emandako errezeten kopurua | – | – | – | 857.006 | 1.226.297 |

| IRUDI ERRADIOLOGIKOEN DIGITALIZAZIOA | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 579.678 | 672.986 | 733.092 | 802.423 | 850.431 |
| Ordenagailu bidezko tomografia axialak (OTA) | 173.190 | 190.470 | 203.930 | 216.223 | 231.127 |
| Ekografiak | 202.482 | 247.235 | 274.451 | 309.329 | 325.854 |
| Mamografiak | 84.298 | 114.358 | 123.274 | 133.928 | 135.502 |
| Erresonantzia magnetikoak | 119.708 | 120.923 | 131.437 | 142.943 | 157.948 |

## Errezeta elektronikoa

Berrikuntza teknologikoaren mugarri nagusietako bat izaten jarraitzen du, eta azken bost urteetan %18,7 igo da haren erabilera. 2018an, euskal herritarrek errezeta hori beste autonomia-erkidego batzuetan erabiltzeko aukera ezarri zen, eta 2019an, guztira, 1,2 milioi errezeta eman ziren bide horretatik.

## Irudi medikoaren digitalizazioa

Arreta eta kudeaketa eremuko berrikuntzaren arloan, erradiologiaren, irudi medikoen eta proba osagarrien digitalizazioa %46 hazi da azken urteetan: 2019an, 850.000 baino gehiago izan ziren. Hala, Osakidetzak irudien eta proben gordailu digital itzela izatea lortu du. Horrek osasun-langileen lana errazten du diagnostikoa eta tratamendua ezartzeko orduan, eta pazienteek jasotzen duten arreta hobetzen du.

## Bideokonferentziak

**Osakidetza: Komunikazio-kanalak**

- Lync
- Profesionalen arteko komunikazioa
- Espetxean dauden pazienteekin bideo kontsultak
- Zentroen arteko saioak

Gaur egun, bideokonferentziak hainbat zentrotako profesionalen saio klinikoetarako eta interkontsultetarako erabiltzen dira, bai eta egoera berezietan dauden pazienteen kontsultetarako ere (espetxean egoteagatik, adibidez). Une honetan, egoitzetan edo etxean daudenentzako kontsultak egiteko ere garatzen ari da aplikazioa. ■



# Bidaia

Aitziber Etxeberria
Idazlea

Egunero bezala, lanera noa. Eguraldi hotza dago eta txamarraren lepoan babestu naiz. Oraindik erdi lo nago, bart gauean ez baitut lo handiegirik egin. Ez dakit afaltzeko hartu nuen zopa oso ona zegoen. Ia astebete zeraman hozkailuan. Ez zuen itxura onik, baina bizi dugun egoeran janaria alferrik galtzea pentsaezina da. Komunean ohean baino denbora gehiago eman dut.

Gogo txarrez jaiki eta gosaldu gabe geltokira abiatu naiz. Ez naiz inorekin gurutzatu ibilbide osoan. Nasan ere bakarrik nago. Parean dudan petrilean iltzatu ditut begiak, txolarre pare bat, aurkitu berri duten ogi zati zahar bat mokokatzen ari dira. Ez dirudi ez batak ez besteak altxor hura partekatzeko gogo handirik duenik. Argi indartsu batek atera nau nire baitatik eta txolarreek ere hanka egin dute. Trena badator. Ohiko moduan geratu eta nork botoia sakatuko zain geratu da. Ukalondoaz eman eta ateak zabaldu dira. Trenak antiseptiko usaina du. Atzo baino jende gehiago dago gaur: hiru pertsona kontatu ditut nitaz gain bagoi osoan. Funtsezko langileak seguruenik ere.

Sartu eta lauko eserleku batean eseri naiz, bakarrik, beste hiru bidaiariengatik urrun, segurtasun neurriak mantenduz.

Eseri orduko mugikorra atera eta pantailan murgildu naiz. Ohiko albisteak eta ohiko aurpegiak baino topatu ez ditudan arren, tematí eman dut denbora errealitate paralelo hartan. Gogaiturik nago bagoi erdi huts hauen isiltasuna pairatzeaz. Gero eta jasangaitzagoa bilakatzen ari zait ia bakarrik eta erabateko isiltasunean bidaiatu beharra.

Bat-batean, irudipen arraro bat izan eta ingurura begiratu dut. Lurrazalera atera berri den sator bat bezain galdurik sentitu naiz. Burua poliki eta tentuz biratu dut. Berehala sentitu ditut bere begiak nire gainean. Begirada iheskorra izan da. Miaketa gauzatzen ari da. Gure begiradak ez dira segundo erdiz ere gurutzatu, aldarapena berehalakoa izan da.

Leihotik begira jarri naiz. Kale hutsak, geltoki hutsa, paisaia… Batetik bestera dabiltza begiak, kirioak… Lasai plantak egiten ari naizen arren, erne nago. Zertan ari da tipo hori? Zergatik begiratu nau horrela? Ziur nago zerbait ezkutatzen duela.

Gaztea da, 25 bat urte izango ditu. Mutil arrunta da. Ile kizkur luze xamarra du eta xerlo trakets batzuk kopetatik behera luzatzen zaizkio narras. Argala eta urduria dirudi eta bularrean erdi pareraino irekita daraman txupa beltzak makarra itxura ematen dio. Galtza bakero pitilloek eta zapatila beltzek bere argaltasuna areagotu baino ez dute egiten.

Berriro begiratu diot xaloa izan nahi duen begirada batekin. Berak itzuli didan erronka begiratuak argi utzi dit ez dudala lortu.

Apur bat kokildurik, kristaletik begira paisaiari so jarri naiz. Trikimailu bat baino ez da, ordea. Ibilbidea tunelez josia dagoenez, ispilu eraginkor bilakatzen dira treneko leihoak noiznahi.

Mutila erne badago ere, seguru sentitu dela dirudi. Mugimendu txikiak eginez erretzeko papera eta tabako apur bat atera eta zigarroa biltzen hasi da. Zigarroa eta inguruaren artean banatzen du etengabe arreta. Bi eserlekuen artean duen tartearen parean estrategikoki kokaturik dago. Bagoia mendean hartzen duen atalaiak inguruko mugimenduen erabateko kontrola ematen dio. Ez da oso argia izan behar egokitu zaidan papera lekuko mutu izatea dela jakiteko. Nire lekuan zertxobait kuzkurtu eta ez dut zirkinik egin.

Poliki, txiskeroa eskuetan hartu eta jakan ezkutaturik zuen harri txiki bat atera du. Apur bat zurbildu eta ingurura begiratu du. Sudurra leihoan erdi itsatsirik dut, zapelatz baten hegaldiari so nago, begi niniaz mutilaren mugimendu neurtua zelatatzen dudan bitartean.

Ez du denbora handirik behar izan esku artean zuen egitekoa burutzeko. Zigarro fin bat izan da egindako lanaren fruitua. Onespena lortu arte hatz artean ibili du atzera eta aurrera. Bai, nahikoa. Txuparen bular pareko patrikan sartu du. Kito. Lasaitasuna berreskuratu du.


Arnasa arinago hartuz esprai txiki bat atera du patrikatik. Eskuetara hiruzpalau pultsazio arin zuzendu eta ondo igurtzi ditu gel hidroalkoholikoaz. Mugikorra eskuan hartu, aurikularrak jarri eta begiak itxi ditu. Trenetik jaistean Mariaren besoetan kulunkatuz egingo duen bidaiaz amesten arituko dela pentsatu dut. ■

# Hitz gezidunak



| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Izurrite<br>Ezin daitekeena | | Gizon izena<br>Hedabide mota | | Salgaien multzo<br>Bokala | | EH-ko zaldia<br>Suari dariona | | Zitoria | |
| | | | | | | | | | | | | |
| | | | $H_2O$<br>*Hegazti harraparia | | | | Aezkoako herritar<br>Atzizkia | | | | | |
| Itsas ugaztuna<br>Argizagia | | Arriskuan jarri<br>Ilunabar | | | | | | | | | | |
| | | | | | | Atx!<br>X. hilabetea | | | Ozeanoaren hasiera<br>Neguko kirola | | | |
| Gutxitu<br>Ez emea | | | | | | | Nekadura<br>Abere belarjale | | | | | |
| | | | | Bizkaieraz, iratzea<br>Biziaren erdian | | | | Done<br>Euskaraz eta kitto! | | | | |
| Danimar-kakoak<br>Etor daitezela | | | | | | | | | | Bokala<br>Kanpo | | |
| | | | | | Burutazioa<br>Hidro-genoa | | | | | | Uranioa | |
| Lantziego-ko auzoa | | | | Ipar EH-n, altxatu | | | | | | | | |


# Goitik behera




Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Gipuzkoako mendia, EAE-ko garaiena (1.551 m).
2. Itogin, itoiti.
3. Arkume, bildots.
4. Bizkaieraz, hiria.
5. Jardun.
6. Ogia egiteko labore.
7. Eguratsaren egoera, eguraldia.
8. Ezkertiarren gustuko kolorea.
9. Gaztigua, zehapena.

## SOLUZIOAK



Hitz gezidunak

Goitik behera

1. Aitxuri 2. Itaxur 3. Axuri
4. Uria 5. Ari 6. Gari
7. Giroa 8. Gorria 9. Zigorra

# IVAP

# Twitter

## IVAP Twitterren

Hemen ere bagaude

# LIBURUAK




# ALDIZKARIAK




IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

**www.ivap.euskadi.eus**

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

**zure etxean doan jaso nahi baduzu, idatzi helbide honetara:**

IVAP
Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz
administrazioaeuskaraz@ivap.eus

Abizenak Izena

NAN/IFZ/ENA

Helbidea Posta-kodea

Herria Probintzia

Mugikorra e-posta

Europar Batasuneko Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten dugu datu pertsonalak **tratamendu-jarduera** honen barruan sartuko direla: "HAEEko argitalpenak". **Tratamenduaren arduraduna:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza. **Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:** Argitalpena kudeatzea eta interesdunei postaz bidaltzea. **Legitimazioa:** Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. **Informazioaren hartzaileak:** Ez da aurreikusten datuak jakinaraztea, lege-betebeharrik izan ezean. **Eskubideak:** Datuetarako irispidea, datuok zuzentzea eta ezabatzea, eta beste eskubide batzuk informazio gehigarrian azaltzen dira. Informazio gehigarria: Hemen kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: **https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/web01-aprat/es/es/contenidos/informacion/rat/es_def/adjuntos/0220_es.html**